2	2021-2024 ALDIRAKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO EUSKAL ESTRATEGIA	Osasun Saila, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, FFAA eta EUDEL			

	JARDUKETA	ERAGILE SUSTATZAILEA	HELURU ESPEZIFIKOAK		
			3.1	3.2	3.3
3	2021-2030 ALDIRAKO FAMILIA ZAINTZAILEEI LAGUNTZEKO ESTRATEGIA SOZIOSANITARIOA				
4	ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030ERAKO EUSKAL ESTRATEGIA	Lehendakaritza			
5	2022-2026 ALDIRAKO ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sails			
6	2023-2026 ALDIRAKO EAEko II. GIZARTE ZERBITZUEN PLAN ESTRATEGIKOA	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sails			
7	ARABA A PUNTO ESTRATEGIA- ETXEAN BAI-ZAINDUZ ARABA FORU PLANA	Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sails			
8	2023-2026 ALDIRAKO BIZKAIKO PLAN OPERATIBO SOZIOSANITARIOA-IRAUPEN LUZEKO ZAINKETETAN TRANTSIZIOA SUSTATZEKO PLANA	Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sails			
9	2023-2027 ALDIRAKO ADINBERRIREN BERRIKUNTZAREN AGENDA ESTRATEGIKOA-LIBURU BERDEA. GIPUZKOA: ETORKIZUNEN EGOITZARANZKO TRANTSIZIOA-DATUEN PLATAFORMA FEDERATUA. ZAINZA HERRI LAB	Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentua			
10	2023-2025 ALDIRAKO OSAKIDETZAREN PLAN ESTRATEGIKOA (Lehen Mailako Arretako Estrategiak, Estrategia Komunitarioa, Adinekoei Arreta emateko Plana eta Kronikotasun Estrategia hartzen ditu barne)	Osakidetza			
11	OSASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA, OSASUN SAILARENA	Osasun Sails			
12	UDAL MAILAKO GIZARTE ZERBITZUEN PROGRAMAK	Gasteizko Udala; Bilbo, Donostia, besteak beste			

HO4 – IRAUNKORTASUNA ETA BIKAINASUNA LORTZEA, KALITATEARI, HUMANIZAZIOARI ETA SEGURTASUNARI DAGOKIENEZ, EUSKADIKO ASISTENTZIA-SISTEMA SANITARIO ETA SOZIOSANITARIOETAN

Helburu orokor hori 4 helburu espezifikoren eta 9 ildo estrategikoren bidez hedatzen da.

Osasunaren arloan erreferente diren nazioarteko erakundeak, OME, European Medicines Agency edo AEBetako Agency for Healthcare Research and Quality AHRQ/RAND, besteak beste, bat datoz aholkatzean asistentzia-, osasun- eta gizarte-sistemek **bikaintasuna lortu** behar dutela, prestazioak optimizatuz, erabiltzaileen osasuna hobetzen edo mantentzen laguntzeko, konfiantza sortzeko eta haien beharrei erantzuteko. Bikaintasuna, **kalitateari, humanizazioari, segurtasunari eta osasun-emaitzei dagokienez**.

Gainera, jasangarritasuna lortzeko lan egin behar da, sistemen bideragarritasuna bermatzeko printzipio gisa, eta, horrekin batera, herritarren babesa bermatzeko, egungo beharrak asebetez, etorkizuneko belaunaldiak beren laguntza-beharrak asebetetzeko duten gaitasuna arriskuan jarri gabe.

Euskadiko laguntza-sistemek beren sektore-estrategietatik garatzen dituzte printzipio horiek, pertsonen beharretara bideratuta, osasunean emaitza hobekuntza lortzeko. Jasangarritasunerantz eta kontuak ematerantz lotutako gobernantza-ereduetan ere aurrera goaz, kalitate-helburuak lehenetsiz eta estrategiak garatuz, profesionalek horiek lortzeko beharrezko gaitasunak eta konpetentziak dituztela ziurtatzeko, bai eta informazio-sistema aurreratuak ere, erabakiak hartzen laguntzeko.

Horregatik guztiagatik, argi dago **Osasun Sailaren, Osakidetzaen eta foru aldundien gizarte-ekintzako arloko mendeko osasun-sistemen eta sistema soziosanitarioen ekarpena funtsezkoa dela** helburu orokor horretatik hedatzen diren helburu espezifiko guztiak lortzeko, helburu espezifiko batzuetan (governantza eta informazio-sistemak) **zuzenean esku hartzen duten beste eragile batzuk ahaztu gabe**, hala nola **laneko osasunaren eremua-Osalan** eta **udal eremua**, udal-osasuneko planen bidez.

Jarduketa Planak lau helburu espezifikoerantz erantzuten dieten ekimen-multzo bat identifikatzen du:

1. **OSAKIDETZAREN 2023-2025 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA**, helburu honi egiten dion ekarpenagatik nabarmendu beharreko estrategia-multzo bat identifikatzen duena:
 - **4.1 helburu espezifikoa**, *“Asistentzia-eredua pertsonarengan eta osasunean emaitzak lortzean zentratzea”*, lortzera bideratutako estrategiak, honako helburu hauek dituzten jardueren bidez: asistentzia-kalitatea hobetzera bideratutako estrategia-multzo bat definitzea eta hedatzea, osasun-arloan irabazi handiagoa lortzera bideratuta; asistentzia-sistema sanitario eta sozialeko paziente eta erabiltzaileen arretaren eta esperientziaren segurtasuna hobetzea; asistentzia-berrantolaketari ekitea; arreta sanitarioaren eta sozialaren eraginkortasuna, efizientzia, segurtasuna eta onargarritasuna ebaluatzeko politikak garatzea, kalitatea etengabe hobetzeko oinarria. Hauek dira arlo honetako estrategia edo plan nabarmenenak:
 - a. **HUMANIZAZIO KORPORATIBOKO EREDUA**
 - b. **BALIO ESTRATEGIA**, gaixotasunak *Balioan oinarritutako arreta* irizpideekin jorrotuta,
 - c. **KALITATE PLAN KORPORATIBOAK** etengabeko hobekuntzako zikloak txertatu nahi ditu asistentziaren kalitatearen bikaintasunaren bilaketan, segurtasunari, irisgarritasunari, jarraitutasunari, integrazioari, egokitzapenari eta humanizazioari dagokienez. Bere ekintzen artean nabarmentzekoak dira asistentziaren kalitatearen estandarrak eta helburuak berrikustea eta eguneratzea, Osakidetzaentzako asistentziaren kalitate-eredu batean oinarrituta, eta hura monitorizatzeke funtsezko adierazleen panela definitzea.
 - d. **PAZIENTEAREN SEGURTASUNERAKO ESTRATEGIA**, Osakidetzaen pazientearen segurtasunaren kultura sustatzeko

- e. **ZAINKETEN BIKAINTASUNERAKO ESTRATEGIA**, Zaintzen bikaintasunarekin konprometitutako zentroetan jardunbide egokiak ezartzeko programan oinarrituta
 - f. **LEHEN MAILAKO ARRETAKO ESTRATEGIA** hedatzea, **4.1 helburu espezifikoari** ere laguntzen baitio, *Lehen Mailako Arreta eta sistemaren ardatz gisa duen rola indartzera* bideratuta baitago.
 - 4.2 helburu espezifikoia *“Laguntza-sistemen gobernantza garatzea, jasangarritasun, bikaintasun eta kontu emate maila handiagoak lortzeko”* lortzera bideratutako estrategien artean, honako hauek nabarmentzen dira: **GOBERNANTZA ETA LIDERGO KORPORATIBOAREN EREDUA** sendotzea, kudeaketa aurreratuko estrategietan oinarrituta eta herritarrek parte hartzeko mekanismoak barne hartuta:
 - g. Iraunkortasunera, kontuak ematera eta osasun-arloko emaitzarik onenak lortzera bideratutako **Kudeaketa Eredu Korporatiboa** finkatzea, elkarlaneko lidergo-eredu baten bidez; **Jardunbide Egokiak Kudeatzeko** estrategia korporatibo baten bidez, eta **Urteko Kudeaketa Plan korporatibo bat eta ESI bakoitzeko** onartzea, **Aginte Taula** batez, **Kudeaketa Kontroleko Taula** batez eta **kanpo-ebaluazioez** osatua, hori guztia **4.2 helburu espezifikoaren** (*“Laguntza-sistemen gobernantza garatzea, jasangarritasun, bikaintasun eta kontu emate maila handiagoak lortzeko”*) ildotik.
 - h. Kudeaketa-eremu guztietan **eraginkortasuna hobetzea**: asistentzia-, ekonomia- eta finantza-esparruetan eta giza baliabideetan, **ASISTENTZIA-GAITASUNA OPTIMIZATZEKO PLAN KORPORATIBOA** barne, asistentzia-zorroa berrikusi eta hedatzea eta prozesuen eraginkortasuna hobetzea barne hartzen dituen asistentzia-premia berrietara egokituz.
 - i. Azpiegiturak eta teknologia modernizatzeko **AKTIBOEN PLAN** bat garatzea.
 - Gainera, OSAKIDETZAREN 2023-2025 ALDIRAKO ESTRATEGIAN, **4.3 helburu espezifikoia** (*“Osasun- eta gizarte-laguntzarako sistemaren jasangarritasuna eta bikaintasuna lortzeko beharrezkoak diren trebetasunak eta gaitasunak dituzten profesionalak edukitzea”*) lortzera bideratutako jardueren multzo bat bereizten da, honako programa hauen bidez: ezagutzak eredu formal eta eraginkor batean transferitzea sustatutako duen **ezagutzaren kudeaketa-eredu** bat garatzea; Osakidetzan **garapen profesionaleko eredu** berri baterantz jotzea, talentua atxiki eta erakartzeko; **talentuaren mapa** definitzea, beharrezko talentu motak zehaztea eta horretara egokitutako prestakuntza-planak egitea, ibilbide profesionala hobetzeko eta erakunderako baliozko aktibo bat sortzeko; Osakidetzaren **lidergo-eredu** propioa definitzea eta bultzatzea.
 - **4.4 helburu espezifikoaren** ildotik (*“Osasun arloko erabakiak hartzen laguntzeko informazio-sistema aurreratuak edukitzea”*), **Eraldaketa Digitaleko Estrategiaren** garapena nabarmentzen da, sortzen ari diren baliabideak eta teknologiak egokitzeko, asistentzia-prozesuak eta -ereduak garapen teknologiko berriekin eraldatzeko. Horretarako, informazio-sistemak eta tresna adimendun aurreratuak egokitu eta garatzea aurreikusten da, osasun-arreta hobetzeko, gobernantzari eta asistentzia-jardunari modu eraginkorrean informazioa emango dioten erabaki klinikoak eta kudeaketakoak hartzea erraztuz; informazio-iturri garrantzitsuak integratuz, asistentziaren jarraitutasuna eta kalitatea ziurtatzeko eta osasun-, gizarte- eta lan-sistemen arteko elkarreragingarritasunean aurrera egiteko, besteak beste; hori guztia, sortzen ari diren eredu eta teknologia berriak kontuan hartuta, eraldaketa digitala bultzatuz.
2. **2021-2024 ALDIRAKO EUSKADIKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO ESTRATEGIA** hedatzeak, gobernantza soziosanitarioarekin, elkarreragingarritasunarekin, prebentzio eta arreta soziosanitarioarekin eta I+G+Brekin lotutako jarduera-arloen eta proiektuen bidez, esparru soziosanitarioko jarduerekin laguntzen die **4.1, 4.2 eta 4.4 helburu espezifikoak**.

JARDUKETA		ERAGILE SUSTATZAILEA	HELBURU ESPEZIFIKOAK			
			4.1	4.2	4.3	4.4
1	OSAKIDETZAREN 2023-2025 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA	Osakidetza				
	a. HUMANIZAZIO KORPORATIBOKO EREDUA					
	b. BALIO ESTRATEGIA					
	c. KALITATE PLAN KORPORATIBOA					
	d. PAZIENTEAREN SEGURTASUNERAKO ESTRATEGIA					
	e. ZAINKETEN BIKAINATSUNERAKO ESTRATEGIA					
	f. LEHEN MAILAKO ARRETAKO ESTRATEGIA					
	g. GOBERNANTZA ETA LIDERGO KORPORATIBOAREN EREDUA (Kudeaketa eredu korporatiboa. Jardunbide egokien kudeaketa, Urteko Kudeaketa Plan korporatibo bat eta ESI bakoitzeko, Aginte Taula, Kontroleko Taula, eta kanpo-ebaluzioak)					
	h. ASISTENTZIA-GAITASUNA OPTIMIZATZEKO PLAN KORPORATIBOA					
	i. AKTIBOEN PLANA					
	j. EZAGUTZA KUDEATZEKO EREDUA. TALENTUAREN MAPA. GARAPEN PROFESIONALA. LIDERGO KORPORATIBOAREN EREDUA					
k. ERALDAKETA DIGITALEKO ESTRATEGIA						
2	2021-2024 ALDIRAKO EUSKADIKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO ESTRATEGIA	Osasun Saila, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, FFAA eta EUDEL				

HO5 – OSASUN PUBLIKOAREN SISTEMA INDARTZEA, IRAUNKORTASUNA ETA BIKAINTRASUNA LORTZEKO ETA EGUNGO ZEIN ETORKIZUNEN ERROKAI AURRE EGITEKO

Helburu orokor hau 4 helburu espezifikoren eta 8 ildo estrategikoren bidez hedatzen da.

Osasun Publikoa osasun-sistemen osagaia da, eta osasuna babestu eta sustatzera eta gaixotasuna prebenitzera bideratutako jarduerak egiten ditu. Osasun-sistema horiek modu kolektiboan lantzen dira, osasun publikoko ekintzak jasotzen dituzten herritarren ezaugarri pertsonalak, sozialak edo kulturalak alde batera utzita. Ikuspegi horretatik, Osasun Publikoaren erakundea osasun, gizarte, hezkuntza, ingurumen, elikadura, garraio eta lurralde-antolamendu, etxebizitza eta beste sistema batzuetako laguntza-zerbitzuekin artikulatzen da, osasuna babestu eta sustatzeko eta gaixotasuna prebenitzeko funtzioak bermatzeko.

Beharrezkoa da Euskadin osasun publikoko erakunde indartsu bat izatea, osasunaren babes-, prebentzio- eta sustapen-helburuei eraginkortasunez erantzuteko, Osasuna Politika Guztietan ikuspegitik eta inor atzean ez uzteko printzipio gidaririk abiatuta, eta, horregatik, osasun-arloko desberdintasunak murrizten laguntzea eta hainbat tamainatako alerta, krisi eta larrialdi sanitarioei ahalik eta eraginkortasun eta efizientzia onenarekin erantzuteko mekanismoak sartzera, tartean diren eragile guztien koordinazioa asumituta.

Euskadiko osasun publikoa eraldaketa-prozesuan dago, norabide horretan eboluzionatzeko, XII. Legegintzaldiko Gobernu Programak sustatutako **Osasun Publikoaren Lege berriak babestuta**.

Lau urteko Jarduketa Plan horretan nabarmentzeko planak eta programak Osasun Sailari dagozkio nagusiki, eta, neurri batean, lotuta daude **EUSKADIKO OSASUN PUBLIKOAREN LEGEAREN** garapenarekin, **EUSKADIKO OSASUN PUBLIKOAREN INSTITUTUA SORTZEAREKIN** eta **OSASUN PUBLIKOAREN ESTRATEGIA** diseinatu eta hedatzearekin.

Jarduketa Planak lau helburu espezifikoei erantzuten dieten ekimen-multzo bat identifikatzen du:

1. **EUSKADIKO OSASUN PUBLIKOKO INSTITUTUA** sortzea, osasun publikoko erakunde profesionalizatua, berezia, agerikoa, eraginkorra eta autonomia funtzionala duena, bikaintasunera, ebaluaziora eta kontuak ematera bideratutako kudeaketa-eredu batekin, **5.1 helburu espezifikoa** lortzen laguntzeko (*“Osasun publikoko sistema malgua, sendoa, arina eta eskalagarria izatea, bere jarduera bultzatzeko eta sektoreen arteko ekintza eta osasuna politika guztietan sustatzeko gaitasun egokiak eta lidergoa dituen”*). **Institutua** sortuta, beharrezkoa izango da bere antolaketa- eta giza baliabideen egitura definitzea eta hedatzea, **5.4 helburu espezifikoaren** (*“Osasun publikoan iraunkortasuna eta bikaintasuna lortzeko eta egungo eta etorkizuneko erroken aurre egiteko beharrezkoak diren gaitasun eta trebetasun profesionalak dituzten profesionalak izatea”*) ildotik.
2. **OSASUN PUBLIKOAREN ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA ETA OSASUN PUBLIKOAREN EUSKAL KONTSEILUA** abian jarrita, eragile publiko eta pribatuen sarea indartu eta koordinatu ahal izango da, osasunaren arloko sektoreen arteko ekintza sustatuz, **5.1 helburu espezifikoaren** ildotik.
3. **OSASUN PUBLIKOAREN ESTRATEGIA** diseinatzea eta hedatzea, osasun publikoko sistema bikain eta jasangarria garatzera bideratua, **5.2 helburu espezifikoarekin**, *“Osasuna zaindu, prebenitu, babestu eta sustatzeko osasun publikoko eginkizunetan kalitatezko jarduna bermatzea (bikaintasunez eta iraunkortasunez), herritarren osasun-beharrei erantzuteko”*, bat etorritik.
4. Elikagaien Segurutasuneko Osasuna eta Ingurumen Osasuna Babesteko programen **KALITATEA HOBETZEKO ESTRATEGIA** diseinatu eta ezartzea, bai eta Osasun Publikoko Laborategiko prozeduren Kalitatea Kontrolatzeko eta Kalitatearen Etengabeko Hobekuntzarako ESTRATEGIA ere, besteak beste, kalitatea bermatzeko sistemak barne hartuta, eta auditoria-politikak eta osasun publikoko programen eta esku-hartzeen ebaluazioa txertatuta, jardunaren etengabeko hobekuntzarako mekanismo gisa eraginkortasuna, efizientzia eta garrantzia baloratzeko, **5.2 helburu espezifikoarekin** bat etorritik.
5. **OSASUNA SUSTATZEKO ETA GAIXOTASUNA PREBENITZEKO PROGRAMA AURRERATUAK** garatu eta hedatzea, Osasun Publikoaren Euskal Erakunde berriaren antolamenduaren barruan, eta **OSASUN PUBLIKOKO ALERTA ETA LARRIALDI SISTEMA** diseinatzea eta abian jartzea, **5.2 helburu espezifikoaren** ildotik.

6. **2021-2026 ALDIRAKO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIA** hedatzea, Osasun Publikotik Laneko Osasunari laguntzeko plan bat abian jarrita, lan-eremuan prebentzioko eta osasunaren sustapeneko mekanismoak indartzea lortzeko, **5.2 helburu espezifikoaren** ildotik.
7. **OSASUN PUBLIKOA ZAINTEKO SARE AURRERATUA** abian jartzea. Sare horrek informazio integraleko sistema eta zaintza-sarea indartuko ditu, biztanleriaren osasun-egoera identifikatzeko, osasunaren gizarte-determinatzaileen banaketa eta inpaktua identifikatzeko, bai eta osasun-arloko desberdintasunen banaketa eta izaera identifikatzeko ere, erabakiak maila globalean eta tokikoan hartzea errazteko, eta **5.3 helburu espezifiko** (“*Osasun publikoko informazio-sistema bat izatea, osasun-baldintzatzaileei buruzko informazioa eta osasun-arloko desberdintasunen monitorizazioa barne hartzen dituena*”) lortzen laguntzeko.
8. **Osasun Sailaren OSASUNAREN BEHATOKIA** garatzea eta hedatzea. Behatokiaren helburua da EAEko biztanleen osasuna monitorizatzea eta ebaluatzea, ekitatearen eta generoaren ikuspegitik, osasun-egoerari eta haren erabakigarrii buruzko informazioaren eta ebidentziaren eskuragarritasuna eta erabilera hobetuz, plangintza hobe egiten, erabakiak hartzen eta osasunean hobeto jarduten laguntzeko, eta, horrela, Euskadiko biztanleen osasun-desberdintasunak eta denboran izan duen bilakaera ezagutu, aztertu eta balioesteko, **5.2 eta 5.3 helburu espezifiko**ei lagunduz.
9. Toki entitateek osasuneko udal planak dituzte (BILBOKO LEHEN UDAL PLANA, DONOSTIAKO I. OSASUN PLAN LOKALA, GASTEIZKO III. OSASUN PLANA), eta eragileen koordinazioa bultzatzen dute udal osasun mahaiaren bitartez, osasun komunitarioko sareei bultzada emateaz gain, eta nazioarteko estrategietan parte hartzeaz gain, hala nola Hiri Osasungarrien Estrategian (OMEren Healthy Cities), 5.1 helburu espezifikoarekin bat etorritik. Era berean, Osasun Sailarekin koordinatuta, elikadura eta ingurumen alerten sarean eta Euskadiko Bero Planean parte hartzen dute, 5.2 helburu espezifikoarekin bat etorritik.

JARDUKETA		ERAGILE SUSTATZAILEA	HELBURU ESPEZIFIKOAK			
			5.1	5.2	5.3	5.4
1	EUSKADIKO OSASUN PUBLIKOKO INSTITUTUA	Osasun Saila	■			■
2	OSASUN PUBLIKOAREN ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA ETA OSASUN PUBLIKOAREN EUSKAL KONTSEILUA		■			
3	OSASUN PUBLIKOAREN ESTRATEGIA			■		
4	KALITATEA HOBETZEKO ESTRATEGIA			■		
5	OSASUNA SUSTATZEKO ETA GAIXOTASUNA PREBENITZEKO PROGRAMA AURRERATUAK OSASUN PUBLIKOKO ALERTA ETA LARRIALDI SISTEMA			■		
6	2021-2026 ALDIRAKO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIA	Lan eta Enplegu Saila		■		
7	OSASUN PUBLIKOA ZAINTEKO SARE AURRERATUA	Osasun Saila			■	
8	OSASUNAREN BEHATOKIA			■	■	
9	UDAL OSASUN PLANA ETA SAREKO LANKIDETZA OSASUN PUBLIKOKO ALERTETAN	Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalak		■	■	

HO6 – INGURUNE ETA KOMUNITATE OSASUNGARRIAK, JASANGARRIAK ETA ERRESILIENTEAK SORTZEA ETA GARATzea, ETA KLIMA-ALDAKETARI ERANTZUTEA

6. helburu orokorra 6 helburu espezifikoren eta 18 ildo estrategikoren bidez hedatzen da, **GJH garapen jasangarriko helburuetara bideratuta**, deskribatutako helburua lortzeko **erreferentzia-esparru gisa**.

2030erako Euskadiko Osasun Planak helburu horren harira adierazten duen bezala, ingurune seguruak behar dira pertsonen osasuna mantentzeko eta hobetzeko; kutsatu gabeak, osasuna alderdi fisiko eta emozionaletan hobetzeko aukerak eskaintzen dituztenak, gizarte-harremanak sustatzen dituztenak eta aukera osasungarriak aukeratzen laguntzen dutenak. Haurren eta adinekoen beharrei erantzun behar diete, eta, oro har, biztanle guztien beharrei, edozein dela ere haien ingurunea eta habitata, bai eta haien ezaugarri pertsonalak ere. Ingurumen-arriskuko faktoreek, klima-aldaketak asko baldintzatzen dituenak, lotura estua dute elkarren artean. Gainera, modu desberdinean banatuta daude lurraldean, hiri- edo landa-inguruneetan, mendian edo kostaldean eta gizarte-faktoreei dagokienez. Horrek guztiak esan nahi du bizi garen inguruneetan eragiten duten politika publikoek, hiri- edo landa-eremuari, ingurumenari, gizarte- edo lanari buruzkoak, eragina dutela pertsonen osasunean, eta beharrezkoa dela horietan esku hartzea, herritarren osasuna hobetzeko. Helburu orokor hori funtsezkoa da Osasun Publikoaren helburuetarako, eta, horregatik, tresnatzat jotzen da, eta oso lotuta dago arestian aipatutako helburu orokorrak lortzearekin; bereziki **2. helburuarekin (“Osasuna hobetzea eta saihesten daitekeen morbi-mortalitatea murriztea”)** eta **5. helburuarekin (“Osasun Publikoaren sistema indartzea, iraunkortasuna eta bikaintasuna lortzeko eta egungo zein etorkizuneko erronkei aurre egiteko”)**, bai eta **“Osasun-arloko desberdintasunak murriztea”** helburu duen zeharkako helburuarekin ere.

Jarraian, helburu orokor hori lortzeko zuzenean eragiten duten planak eta programak aipatzen dira:

- 1. EUSKADIKO HIRI AGENDA - BULTZATU 2050 eta haren OpenGela eta BIRTUOSS proiektuak hedatzea. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak** sustatutako programak dira, **6.1 (“Hiri- eta landa-ingurune osasungarriak, seguruak, jasangarriak, belaunaldi anitzekoak, inklusiboak eta askotarikoak lortzea”)** eta **6.5. (“Tokiko mailan herritarrek osasunean parte hartzeko eta ekintza komunitarioarako ingurune sozialak sustatzea, populazioen aniztasuna kontuan hartuta eta ekitate-ikuspegiarekin”)** **helburu espezifikoak** lortzen laguntzeko. **EUSKADI BULTZATU 2050 Hiri Agendak** hiri-berroneratzearen, pertsona eta familia ahulenei etxebizitza eskuratzeko programak eskaintzearen, eta hiriko zein hiriarteko mugikortasun-sistema birdiseinatzearen aldeko apustua egiten du, emisio gutxiko mugikortasuna lortzeko. Horrez gain, irisgarritasun unibertuala ere sustatzen du, bereziki mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Era berean, gizarte-faktoreak integratzen ditu hiri-berroneratze prozesuetan, parte-hartze komunitarioaren ikuspegitik.
- 2. 2022-2026 ALDIRAKO ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA eta EUSKADIKO IRISGARRITASUN UNIBERTSALERAKO ESTRATEGIA** (Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak berak sustatutakoak biak) hedatzearen helburua da herritar guztiek beren bizi-zikloaren une bakoitzerako bizileku-soluzio eskuragarri, irrisgarri eta egokituak izatea, bai eta Euskadiko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak bermatzea ere, **6.1 helburu espezifikoaren** ildotik.
- 3. BIDE SEGURTASUNAREN ALDEKO EUSKAL ITUNA, Segurtasun Sailak** sustatu eta EAEko bide-segurtasunari lotutako erakunde eta elkarte guztiek sinatutakoa, hedatuta istripu-tasa murriztu nahi da, **Zero Biktima Ikuspegiarekin**, eta, beraz, **6.1 helburu espezifikoa** lortzen laguntzen du. Bide-segurtasuna politika publikoaren agendatik landu beharreko funtsezko gaia bihurtu da, OMEk gomendatzen duen bezala; izan ere, trafikoko istripuak dira haurren eta 5-29 urte bitarteko pertsonen eta gazteen heriotza-kausa nagusiak.
- Kultura Sailaren **BIZITZA AKTIBO ETA OSASUNGARRIRAKO EUSKADIKO PLANA** diseinatzeak eta ezartzeak **6.1 eta 6.5 helburu espezifikoak** lortzen lagunduko du, tokiko mailan ezartzen den heinean eta jarduera fisikoa adin guztietan egiteko eta pertsona guztientzat hiri- eta landa-zirkuituak garatzen laguntzen duen heinean.
- 2030ERAKO EUSKADIKO INGURUMENENKO ESPARRU PROGRAMA** hedatzea, **Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Osasun Sailaren** lankidetzarekin sustatutakoa. Programa honek euskal

ingurumen-politikaren norabidea markatzen du hamarkadaren amaierara arte. Ingurumen-arazoak (erronkak) zeharka lantzen dituzten proiektu eraldatzaileen inguruan egituratzen da. Helburu orokor horri dagokionez definitzen dituen 8 proiektuen artean, **Osasun eta Ingurumen Behatokiaren** garapena nabarmendu behar da. Programa honek eragin zuzena du **6.2** (*"Euskadin klima-aldaketa arintzen eta Euskadi klima-aldaketara egokitzen laguntzea, osasunean dituen ondorio kaltegarriak prebenitzeko eta biztanleen erresilientzia handitzeko"*), eta **6.3** (*"Ingurumen-faktoreetatik eratorritako herritarren osasunerako arriskuak minimizatzea, 'Osasun bakarra' ikuspegia txertatuz"*) **helburu espezifikoetan**.

6. **Osasun Sailaren TENPERATURA ALTUEK OSASUNEAN IZAN DITZAKETEN ONDORIOAK PREBENITZEKO JARDUKETA PLANA** eguneratu eta hedatzea, **Euskalmeten** lankidetzarekin. Plan horren barruan sartzen dira tenperatura altuak zaintzea eta iragartzea, alerta-mailak adieraztea eta herritarrei prebentzio-jarduerak egiteko gomendioak ematea, eta **6.2 helburu espezifikoarekin** bat datozen beste eragile batzuk. Baita Osakidetzaren **INGURUMEN KUDEAKETAKO ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOKO PLANA** abian jartzea ere, Euskadi klima-aldaketara arintzen eta egokitzen laguntzeko apustua, ingurumen-kudeaketa arduratsuari helduz, bere instalazioen energia-eraginkortasunaren eta azken kontsumoaren maila hobetuz, **6.2 helburu espezifikoaren** ildotik.
7. Udalerri jasangarrien euskal sarea den **UDALSAREA 2030EN 2026KO PLAN ESTRATEGIKO**aren jarraipena eta hedapena. Sare horren helburua da tokiko iraunkortasuna sustatzea eta Euskadiko administrazio publikoko maila guztien arteko koordinazioa sustatzea. Plan horren bidez, tokiko klimaren eta energiaren arloko estrategia zehazten da, eta EAEko udalerrien atxikimendua sustatzen da, bai eta **KLIMAREN ETA ENERGIAREN ALDEKO ALKATETZEN ITUNA** ere, hirien sare globala, Europar Batasunak klimaren eta energiaren arloan dituen helburuak lortzeko eta gainditzeko konpromisoa hartu dutenak biltzeko asmoz. Horrek zuzenean lagunduko du **6.1 eta 6.2 helburu espezifikoak** lortzen.
8. **SEKTORE ARTEKO "OSASUN BAKARRA" ESTRATEGIA** diseinatu eta abian jartzea, ikuspegi integralarekin, pertsonen, animalien eta ekosistemen osasunean eragina duten osasun-arazoen zaintza, diagnostikoa eta konponbideak koordinatzeko, hala nola mikrobioen aurkako erresistentzia gero eta handiagoa, zoonosi berrien agerpena eta bektoreek transmititutako gaixotasunak. Estrategia horrek **6.3 helburu espezifikoari** lagunduko dio (*"Ingurumen-faktoreetatik eratorritako herritarren osasunerako arriskuak minimizatzea, 'Osasun bakarra' ikuspegia txertatuz"*), Osasun Bakar baten ikuspegia txertatuz. Ildo horretan, nabarmentzekoa da **BEKTOREAK ZAINTEZKO ETA KONTROLATZEKO PROGRAMA** diseinatu eta abian jarri izana. Programa hori **Osasun Sailak eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak** bultzatu dute, foru aldundien, udalen eta Eudelen lankidetzarekin. Programa honen bidez, jarraibide koordinatuak ezarri nahi dira bektoreek transmititzen dituzten eta tenperaturak igotzeak eragiten dituen gaixotasun berriak zaintzeko eta kontrolatzeko. Era berean, nabarmentzekoa da **ERRESISTENTZIA ANTIMIKROBIANOEN ONDORIOZKO ARRISKUAREN KONTRAKO ESTRATEGIA INTEGRALAREN** diseinua eta garapena, eragindako erakundeekin elkarlanean bultzatutakoa, **6.3 helburu espezifikoaren** ildotik.
9. **ELIKAGAIEN SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO PROGRAMAREN** hedapena. Programa horren barruan sartzen dira elikagai-establezimenduetan eta ekoiztiko edo merkaturatutako elikagaien segurtasuna ofizialki kontrolatzeko programak (segurtasun kimikoa eta mikrobiologikoa), bai eta nutrizioarekin eta etiketatzearekin lotutako jarduerak ere, **6.4. helburu espezifikoaren** (*"Pertsona guztiek elikagai seguruak eta osasungarriak eskura ditzaten sustatzea, haien beharrak asetzeko adina"*) ildotik.
10. **2021-2025 ALDIRAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KATEAREN KONTROL OFIZIALEKO PLANAREN** jarraipena eta hedapena egiteko, **Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak** foru aldundietan nekazaritza eta abeltzaintzaren arloan eskumena duten sailekin lankidetzan **ELIKA Fundazioaren** laguntzarekin sustatutakoa, nekazaritza elikagaien katean zehar segurtasun eta kalitate arloko arazuko eskakizunak betetzeko, eta, beraz, **6.4 helburu espezifikoan** zuzenean eragiten duen plana da. Halaber, **HAZI** buru duen **NIREA PROGRAMA** bezalako programen hedapenaren helburua da elikadura

osasungarriarekin (tokiko ekoizpena eta salmenta) lotutako produktuak garatzea eta hezkuntza sistemarekin lotzea, jantoki eta eskola baratzen programen bidez, **6.4 helburu espezifiko** horren beraren ildotik.

11. **OSASUNA ETA ONGIZATEA IRABAZTEKO EKINTZA KOMUNITARIOAN AURRERA EGITEKO PROIEKTUAREN** garapenak, Osasun Sailak bultzatukoak, erakundeen eta herritarren arteko lankidetzak du helburu, esku-hartze sozialak osasun publikoaren ikuspegitik sustatzeko, osasunean irabazteko, **6.5 helburu espezifikoaren** (*“Tokiko mailan herritarrek osasunean parte hartzeko eta ekintza komunitarioarako ingurune sozialak sustatzea, populazioen aniztasuna kontuan hartuta eta ekitate-ikuspegiarekin”*) ildotik. Gainera, **OSASUNA IKUSPEGI KOMUNITARIOTIK LANTZEKO ESTRATEGIA** zabaltzarekin artikulatzen da proiektu hau, Osakidetza Osasun Sailarekin lankidetzan bultzatuta. Estrategiaren helburua da prebentzioa eta osasunaren sustapena lantzea pertsonen eta haien komunitatearen bizitza-ingurune hurbiletik, eta, horrela, herritarrek osasunaren kudeaketa arduratsuan parte har dezaten lortzea, **6.5 helburu espezifikoaren** ildotik.
12. **HaurEKIN HAURREN HIRI ETA HERRIEN EUSKAL SAREA hedatzeak (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak** sustatuta) ere laguntzen du Osasun Planaren **1. helburu orokorra** eta *“Pertsonak beren osasunaren eta ongizatearen protagonista eta eragile aktibo izan daitezen lortzea”* helburu duen zeharkako helburua lortzen, eta zuzenean eragiten du inguruneetan, haurren ikuspegia tokiko politikan txertatzearen aldeko apustua egiten duen heinean, harremanak, baliabideak eta espazio komunak eraldatzeko, gure herri eta hirietan konfiantza-, autonomia-, partaidetza- eta osasun-baldintzak sortuz, **6.5 helburu espezifikoak** adierazten duenaren ildotik. Era berean, **2021-2024 ALDIRAKO ADINEKOENTZAKO EUSKAL ESTRATEGIA** hedatzeak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak sustatuta, **3. helburu orokorrean** eragiteaz gain, **6. helburu orokorra** lortzen laguntzen du, adinekoentzako programa eta esku-hartze komunitarioak eta ingurune osasungarriak proposatzen dituen neurrian, eta horrek **6.1 eta 6.5 helburu espezifikoak** hedatzea bultzatzen du.
13. **2021-2026 ALDIRAKO LANeko SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIA** hedatzea. **OSALANek, Lan eta Enplegu Sailari** atxikitako erakundeak, eta **ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030ek** bultzatuta, eragin zuzena dute **6.6 helburuan espezifikoan** (*“Pertsonen osasuna sustatzea beren lan-ingurunean”*). Helburu orokor horretan sartutako sei helburuetako bat bada ere, haren irismenaren zabaltasunak funtsezko estrategia bihurtzen du **zeharkako helburuak** ere lortzeko: **1:** *“Osasun-arloko desberdintasunak murriztea”*; **2:** *“Pertsonak beren osasunaren eta ongizatearen protagonista eta eragile aktibo izatea lortzea”*; eta **3:** *“Erakundeen eta eragile guztien arteko eta maila guztietako koordinazioa eta lankidetzak hobetzea, Osasuna Politika Guztietan bermatze aldera”*.
14. Toki-mailan, garrantzitsua da hiri-plangintzan jardutea, baita HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRETATIK garraioa, berdatzea eta bizitoki-konponbideak izatea ere, eta isolamendua eta irisgarritasuna hobetzeko obretarako LAGUNTZAK ematea, aterpe klimatikoak jartzea, ingurumena zaintzea, eta partaidetza-prozesuak eta ekintza komunitarioa sustatzea, 6.1, 6.2, 6.3, 6.4 eta 6.5 helburuekin bat etorriz.

JARDUKETA		ERAGILE SUSTATZAILEA	HELBURU ESPEZIFIKOAK					
			6.1	6.2	6.3	6.4	6.5	6.6
1	EUSKADIKO HIRI AGENDA. BULTZATU 2050							
2	2022-2036 ALDIRAKO ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila						
	EUSKADIKO IRISGARRITASUN UNIBERTSALERAKO ESTRATEGIA							
3	BIDE SEGURTASUNAREN ALDEKO EUSKAL ITUNA	Segurtasun Saila						
4	BIZITZA AKTIBO ETA OSASUNGARRIRAKO PLANA	Kultura Saila						
5	INGURUMENENKO ESPARRU PROGRAMA-OSASUN ETA INGURUMEN BEHATOKIA	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen, Osasun, Segurtasun Sailak						
6	TENPERATURA ALTUEK OSASUNEAN IZAN DITZAKETEN ONDORIOAK PREBENITZEKO JARDUKETA PLANA							
	INGURUMEN KUDEAKETAKO ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOKO PLANA	OSAKIDETZA						
7	SEKTORE ARTEKO "OSASUN BAKARRA" ESTRATEGIA: BEKTOREAK ZAINTEZKO ETA KONTROLATZEKO PROGRAMA ETA ERRESISTENTZIA ANTIMIKROBIANOEN ONDORIOZKO ARRISKUAREN KONTRAKO ESTRATEGIA INTEGRALA	Osasun Saila Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Foru Aldundiak eta EUDEL						
8	ELIKAGAIEN SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO PROGRAMA	Osasun Saila						
9	2021-2025 ALDIRAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KATEAREN KONTROL OFIZIALEKO PLANA	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila						
	NIREA PROGRAMA							
10	OSASUNA ETA ONGIZATEA IRABAZTEKO EKINTZA KOMUNITARIOAN AURRERA EGITEKO PROIEKTUA ETA OSASUNA IKUSPEGI KOMUNITARIOTIK LANTZEKO ESTRATEGIA	Osasun Saila, Osakidetza, EUDEL, Foru Aldundiak						
11	HaurEKIN, HAURREN HIRI ETA HERRIEN EUSKAL SAREA	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila						
	2021-2024 ALDIRAKO ADINEKOENTZAKO EUSKAL ESTRATEGIA							
12	2021-2026 ALDIRAKO LANENKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIA, ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030ek	Lan eta Enplegu Saila-OSALAN						
13	TOKIKO EKINTZAK HIRIGINTZATIK, ETXEBIZITZATIK, EKINTZA KOMUNITARIOTIK ETA OSASUNAREN BABESETIK	Udalak, Bilbo, Donostia, Vitoria-Gasteiz barne						

HO7 – EUSKADIN IKERKUNTZAN ETA BERRIKUNTZAN INBERTITZEA, ETA OSASUNEAN ERAGITEN DUTEN SISTEMEN HOBETUNTZAN APLIKATZEA

Helburu orokor honek 4 helburu espezifiko eta 9 ildo estrategiko biltzen ditu.

Osasun Planak ikerketa eta berrikuntzako estrategia dinamiko baten denbora eta perspektiba zabaltzea sustatzen du, osasun-arazo nagusiei eta horien determinatzaileei erantzunez, komunitatearen ikuspegia txertatuz eta osasun-politikak, -estrategiak eta -programak bideratzen eta osasun-sistema osoaren eraginkortasuna, efizientzia eta iraunkortasuna hobetzen laguntzeko.

Beharrezkoa da Euskadin osasun-arloko ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustu iraunkorra egitea, bai eta ezagutza zientifikoa gure gizartearen osasun-sistemak garatzeko eta aurrera egiteko giltzarrietako bat izan dadin lortzea ere, Osasun Planaren helburuekin bat datozen ikerketa- eta berrikuntza-ildoak lehenetsiz.

Helburu orokor honetarako erreferentzia nagusia **Osasun Sailaren 2022-2025 ALDIRAKO OSASUN ARLOKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ESTRATEGIA** da. Estrategia horren osagarri dira, helburu hori lortzen laguntzeko, **Osakidetzan** eta Jaurlaritzako beste sail batzuetan garatzen ari diren beste ikerketa-programa eta -proiektu batzuk: Lanbide Heziketako Sailburuordetza, **Tknika**ren bidez, eta Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza, **HAZIK** eta **Elikak** koordinatutako proiektuen bidez, eta Lan Sailburuordetza, **Osalanen** bidez, lan-osasuneko ikerketa-programak.

Jarduketa Planak lau helburu espezifiko erantzuten dieten ekimen-multzo bat identifikatzen du:

1. **2022-2025 ALDIRAKO OSASUN ARLOKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ESTRATEGIA** hedatzea. Horren helburua da bikaintasunak eta ikerketa- eta berrikuntza-jardueren emaitzen translazioak aitortutako euskal osasun-sistema bat lortzea, eta, horretarako, I+G+b integratu, dinamiko eta kolaboratiboa izatea egungo zientzia-, teknologia- eta enpresa-ehunarekin, helburu orokor batzuk lortzen laguntzen duten proiektuak garatuta. Honako hauek nabarmendu behar dira:
 - HO1 - Europako UPRIGHT proiektua, nerabeen osasun mentala hobetzeko eta sustatzeko eskoletan globalki aplikatutako erresilientziari buruzko esku-hartze prebentibo unibertsalari buruzkoa (BIOSISTEMAK).
 - HO2 - Europako CAREMATRIX proiektua: Paziente pluripatologikoen kudeaketa eta maneia (BIOEF);
 - HO3 - Trakzio-proiektuak 2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren zeharkako trakzio-ekimenaren testuinguruan: Zahartze jasangarria, Biosilver kasu: Bizi-iraupen osasungarriko ekosistema, Zahartze osasungarriko eragina duten inguruneak, Murgiltze-gela: Egoiliarren osasun fisiko, mental eta sozialaren optimizazio-prozesua hobetzeko eta bizi-kalitatea handitzeko murgiltze-gela, OSASUNBERRI II, Adinekoen gaitasun funtzionala: faktore erabakigarriak eta horiek babesteko eta sustatzeko estrategiak.
 - HO4 - THCS Europako Lankidetzak: Asistentzia-sistema sanitarioen eta soziosanitarioen eraldaketa, JADECARE Proiektua: Pertsonarengan zentratutako eta digitalki gaitutako arreta integratuaren aplikazioari buruzko baterako ekintza, balioan oinarritutako medikuntza-proiektuak. Adib.: VOICE: Bularreko eta biriketako minbiziaren emaitzen balioan oinarritutako osasun-arreta European, Europako Lankidetzak THCS: Osasun-sistemen eraldaketa.
 - HO5 - 2030erako Osasun Zientzia eta Teknologia Planaren ekintza osagarriak ikertzeko proiektua, Euskadiko I+G+Brako osasun-datuak hobeto erabiltzeko analisirako eta aholkularitza estrategiko eta teknikorako.
2. **DATUEN PLATAFORMA FEDERATUA (Zaintza Herri Lab)**, datu soziosanitarioen espazio komun bat garatzeko, prozesuak integratzea, koordinazioa hobetzea eta balio erantsi handiko zerbitzu soziosanitario berritzaileak sortzea ahalbidetzeko, **7.1 helburu espezifikoak**.

3. **OSASUN PUBLIKOA IKERTZEKO ESTRATEGIA** bat diseinatzea eta garatzea, **7.2 helburu espezifiko** ("*Osasun publikoaren arloko gaitasunak indartzea eta ikerketa bultzatzea, osasun-politikak, -estrategiak eta -programak bideratzeko*") lortzera bideratuta. Horretarako, lehentasuna eman beharko zaio biztanleriaren osasun-egoerari, osasun-determinatzaileei eta desberdintasunei buruzko ikerketari, bai eta osasun-sistema eta -zerbitzuei buruzko ikerketari ere. Ildo horretan, **2021-2026 ALDIRAKO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIAREN** hedapenak Laneko Osasuneko Informazio Sanitarioko Sistema baten aldeko apustua egiten du: gutxieneko datu-multzoa, gaixotasun profesionalaren susmoa jakinarazteko sistema, amiantoaren eraginpean dauden langileen zaintza, laneko minbiziaren programa. **7.2 helburu espezifiko** **lortzen** ere lagunduko du.
4. **ZAHARTZEARI BURUZKO IKERKETA ZENTRO BAT** sortzea **ADIMEN ETA GARAPEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT**, Arabako Foru Aldundiak sustatuta, osasun publikoaren arloko gaitasunak indartzera eta ikerketa bultzatzera bideratuta, osasun-politikak, -estrategiak eta -programak bideratzeko, **7.2 helburu espezifiko**.
5. **LHko EUSKAL SISTEMAN (TKNIKA-ZENTROAK) OSASUNEAN APLIKATUTAKO IKERKETA** proiektuak, honako diziplina hauetan: elikadura osasungarria, zelulen biologia eta bioinprimaketa, medikuntza pertsonalizatua, etxe adimendunak, osasunari eta elikadurari aplikatutako biologia molekularra, zahartze aktiboa eta ongizate emozionala, **7.3 helburu espezifikoari** ("*Osasun-arloko ikerketa- eta berrikuntza-ekosistemaren potentzial osoa erabiltzea, osasunean I+G+b lantzen duten eragile guztiak barne*") laguntzen zaio.
6. **ELIKADURA OSASUNGARRIAREN PILOTAJE TALDEAREN** hedapena, RIS3ko Elikadura Osasungarria eta Jasangarriaren Taldea barne duena, 6 azpilderekin, besteak beste, Ekosistema seguruak, osasungarriak eta jasangarriak, Nutrizio pertsonalizatua eta elikagai eta proteina-iturri berriak zahartze osasungarrirako eta Sukaldaritzaz-garapena elikadura funtzional, osasungarria eta jasangarrirako. Elikadura Osasungarria pilotaje taldea Zientzia eta Teknologiaren Euskal Planean (ZTEP) txertatutako RIS3 estrategiaren barruan dago, eta **7.3 helburu espezifikoari** laguntzen dio.
7. **"BASERRITIK MAHAIRA" EUSKAL IKERKETA PLANA**, Elikagaien Segurtasuneko Ikerketa Plana (orain Baserri Mahaia deitua) eta Koordinazio Mahaia hedatzea. Mahai horretan Nekazaritza eta Osasun Sailburuordetzak, EHUK, AZTIK, NEIKERek, LEARTIKERek eta OPko laborategiek parte hartzen dute (ELIKAK koordinatua), **7.2 eta 7.4 helburu espezifikoak**, hots, "*Osasunean eragiten duten sistemen hobekuntzan ikerketaren eta berrikuntzaren emaitzen transferentzian eta erabileran aurrera egitea*".
8. **OSAKIDETZAREN 2023-2025 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA** hedatzea, helburu horri egiten dion ekarpenagatik nabarmendu beharreko estrategia-multzo bat identifikatzen duena. **BERRIKUNTZA KORPORATIBOKO ESTRATEGIA** bat diseinatzea eta ezartzea, eta **ERALDAKETA DIGITALEKO ESTRATEGIA** bat diseinatzea eta ezartzea.
9. **ADINBERRI ZAHARTZARORAKO BERRIKUNTZARAKO ERREFERENTZIA ZENTROAK**, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutakoak, erreferentzia-gunea izan nahi du zahartzeari dagokionez, balio erantsi handikoa, ezagutza sortzeko eta arreta-eredu berriak esperimintatzeko duen gaitasunagatik, **7.3 eta 7.4 helburu espezifiko**en ildotik, besteak beste.

JARDUKETA		ERAGILE SUSTATZAILEA	HELBURU ESPEZIFIKOAK			
			7.1	7.2	7.3	7.4
1	2022-2025 ALDIRAKO OSASUN ARLOKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ESTRATEGIA	Osasun Saila				
2	DATUEN PLATAFORMA FEDERATUA (Zaintza Herri Lab)	Gipuzkoako Foru Aldundia				

JARDUKETA		ERAGILE SUSTATZAILEA	HELBURU ESPEZIFIKOAK			
			7.1	7.2	7.3	7.4
3	OSASUN PUBLIKOA IKERTZEKO ESTRATEGIA	Osasun Saila				
	2021-2026 ALDIRAKO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIA	Lan eta Enplegu Saila				
4	ADIMEN ETA GARAPEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZAHARTZEARI BURUZKO IKERKETA ZENTROA	Arabako Foru Aldundia				
5	LH-KO EUSKAL SISTEMAN (TKNIKA-ZENTROAK) OSASUNEAN APLIKATUTAKO IKERKETA	Hezkuntza Saila				
6	ELIKADURA OSASUNGARRIAREN PILOTAJE TALDEA	HAZI				
7	"BASERRITIK MAHAIRA" EUSKAL IKERKETA PLANA	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila: ELIKA, NEIKER, Osasun Saila EHU, AZTI, LEARTIKER				
8	OSAKIDETZAREN 2023-2025 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA	Osakidetza				
	• BERRIKUNTZA KORPORATIBOKO ESTRATEGIA					
	• ERALDAKETA DIGITALEKO ESTRATEGIA					
9	ADINBERRI ZAHARTZARORAKO BERRIKUNTZARAKO ERREFERENTZIA ZENTROA	Gipuzkoako Foru Aldundia				

Hiru hiriburuetako udalei dagokienez, herritarren osasuna eta ongizatea hobetzera eta osasun-arloko gizarte-desberdintasunak murriztera bideratutako jarduerak aurreikusten dituzte guztiek, osasunaren gizarte-determinatzaileetan eta osasun politika guztietan printzipioan oinarrituta, beren eskumenekin bat etorritik eta beren osasun-planetan islatzen diren helburu eta jarduerekin:

- **GASTEIZKO UDALERRIKO III. OSASUN PLANA (2024-2029)**, prestabidean.
- **BILBOKO I. UDAL OSASUN PLANA (2019-2026)**, hasiera batean 2023ra arte, baina duela gutxi 2026ra arte luzatu da.
- **DONOSTIAKO UDALAREN I. TOKIKO OSASUN PLANA (2022-2025)**.

Estrategia, helburu eta jarduketa horiek Helburu Orokor gehienei laguntzen diete, baina eragin txikiagoa dute HO4n, osasun-laguntzaren arloan, ez baitator bat haren eskumenekin.

ZEHARKAKO HELBURUAK

Osasun Planak jasotzen dituen zeharkako hiru helburuak: **zeharkako 1. helburua**, “Osasun-arloko desberdintasunak murriztea”; **zeharkako 2. helburua**, “Pertsonak beren osasunaren eta ongizatearen protagonista eta eragile aktibo izan daitezen lortzea”; eta **zeharkako 3. helburua**, “Erakundeen eta eragile guztien arteko eta maila guztietako koordinazioa eta lankidetzeta hobetzea, Osasuna Politika Guztietan bermatze aldera”, 7 Helburu Orokorren, Helburu Espezifikoaren eta Ildo Estrategikoen hedapenean txertatu dira, Osasun Planaren dokumentuak jasotzen duen bezala eta, beraz, aurreko ataletan deskribatutako estrategia, plan eta programek horiek lortzen lagunduko dute.

Zeharkako 1. helburuaren kasuan, gogoratu behar da **3 emaitza-helburu orokorrek**, zehazki 1., 2. eta 3. helburu orokorrek **pertsonan eta bizi-zikloaren ikuspegian jartzen dutela fokua, eta gainerako 4., 5., 6. eta 7. helburuak**, berriz, instrumentalagoak direla eta **osasun-helburuak lortzeko beharrezkoak diren egiturazko alderdiak jorraztera** bideratzen direla. **Horretarako, funtsezkoa izango da biztanleriaren aniztasun guztia kontuan hartzea**. Horiek guztiek laguntzen dute, zalantzarik gabe, baina nabarmentzekoa da 5. helburu orokorra, Euskadiko Osasun Publikoaren sistemari buruzkoa, sektore arteko abordatzean eta osasunaren gizarte-determinatzaileen gaineko jarduketan oinarritzen dena, komunitatearen parte-hartzea bultzatzen duena, emaitza orokorrak hobetzeko eta osasun-arloko desberdintasunak murrizteko.

Zeharkako 2. helburua lortzeko ekarpenari dagokionez, **adierazi behar da helburu orokor guztiek, emaitza-helburuek zein helburu instrumentalek, helburu espezifikoak edota zeharkako helburu hori lortzen lagunduko duten ildo estrategikoak dituztela**. Horietako gehienek bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko eta praktikatzeko helburu espezifikoak aipatzen dituzte, arrisku-faktoreekiko esposizioa ahalik eta gehien murriztea, osasuna modu pertsonalean zaintzeko baldintza egokiak sortzea eta ingurune eta komunitate osasungarri, iraunkor eta erresilienteak sortzea/garatztea, azken batean, herritarren partaidetzarako eta tokiko osasunaren arloko ekintza komunitariorako ingurune sozialak sustatzen dituztenak. Azken finean, pertsonak dira beren bizitzaren eta, beraz, osasunaren protagonista, eta horrek esan nahi du erantzukizunak partekatzen dituztela erabakiak hartzean eta nork bere burua zaintzean.

Azkenik, **zeharkako 3. helburuaren** kasuan, **Osasuna politika guztietan printzipio gidariari erantzuten dio**, eta Osasun Planak jasotzen duen bezala, hori lortzeko politikak formulatzen dira osasunaren determinatzaile sozialetan modu sistematiko eta koordinatuan eragiten duten sektoreetatik, haien arteko sinergiak bilatuz, biztanleria osoan osasuna eta ekitatea hobetzeko.


Helburu orokor guztietan zuzenean oso barneratuta dagoen helburua da, eta berariaz aipatzen da erakundeen arteko koordinazioa **edo zeharkakoa**, jasotako estrategia, plan eta programetako batzuk erakundeen arteko lan koordinatuaren emaitza baitira.

4 JARDUKETA PLANAREN JARRAIPENA: GOBERNANTZA ETA EBALUAZIOA

Osasun Planak gobernantza-egitura bat du, haren hedapena, garapena, jarraipena eta ebaluazioa errazteko. Planean bertan zehaztutako misioarekin eta printzipioekin bat etorritik, ezarritako helburuak lortzen lagundu behar du horrek, eta, gainera, honako hauek ekarri behar ditu:

- Lidergoa eta bultzada Oparen hedapenean eta jarraipenean.
- Interes-talde guztien konpromisoa Helburuak eta Ildo Estrategikoak beren gain hartzeko, Osasuna Politika Guztietan printzipioa kontuan hartuta.
- Hedapenerako laguntza eta horren jarraipena.
- Garapen-mailaren monitorizazioa.
- OParen hedapenaren eta helburu-lortzearen ebaluazioa.

02. irudian organigrama ageri da, OParen gobernantzaren antolamendu-egituraren elementu nagusiekin:



02. irudia. Osasun Planaren Gobernantza Organigrama

KONTU EMATEA: JARRAIPENA, MONITORIZAZIOA ETA EBALUAZIOA

Kontuak emateko printzipioan oinarrituta, ebaluazio-eredu zabal bat egituratu da, Osasun Planaren jarraipena eta ebaluazioa barne hartzen dituena. Prozesu horiek aldizka egingo dira, egindako jarduerak aurreikusitakoari erantzuten dietela eta emaitzek ezarritako helburuei erantzuten dietela ziurtatzeko. Horrez gain, gardentasun-ariketa bat egingo da kudeaketan eta kontuak ematean, hori guztia honako helburu hauei erantzun behar dien **ebaluazio-eredu** baten testuinguruan:

- Osasun Plana ezartzen laguntzea, desbideratzeak antzematea eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezartzea.
- Helburuak lortzeari buruz orientatzea.
- Kontuak emateko sistema bat ezartzea, herritarrei, politikaren arduradunei, kudeaketari eta profesionalei zuzendua, eta osasun-politiken gobernantza ona bultzatuko duena.

OPari dagozkion kontuak emateko eredu hori funtsezko hiru elementuk osatzen dute:

1. **Aurrerapena monitorizatzeko eta/edo jarraipena egiteko urteko programa bat**, Osasun Planaren eta, zehazki, Jardueta Planaren hedapenean izandako aurrerapena balioestea helburu duena. Helburua definitutako ildo

estrategikoak eta programak eta lortutako produktuak abian jartzeko prozesua monitorizatzea da. Jardueren eta prozesuen monitorizazioa da. Prozesu horietan aurrerapenak identifikatzeko, tarteko produktuak erregistratzeko, baloratzeko eta ekintzen bilakaera zuzentzeko aukera ematen du, behatutako dinamikaren eta produktibitatearen arabera.

2. Kontuak emateko ereduaren bigarren zatia **lau urtean behingo ebaluazioa** da; **2026an** egingo da, bi elementutan oinarrituta:
 - 2.1. Gaikako ebaluazio** sakonak, Osasun Planaren helburu orokor eta espezifiko batzuk betetzeko bidean aurrera egin den jakiteko; eta, bigarrenik,
 - 2.2. emaitza-adierazleen sistema bat edo aginte-taula bat.**

OParen Idazkaritza Teknikoari dagokio monitorizazioa eta ebaluazioa egiteko behar den informazioa biltzea. Horretarako, ildo estrategikoak identifikatzeko, hedatzeko eta horien jarraipena egiteko erantzukizunen bat duten eragile guztien laguntza izango du. Inpartzialtasuna bermatzeko, ebaluazioak, ahal dela, modu independentean egingo dira.

Osasun Planaren Idazkaritza Teknikoari dagokio ebaluazio-prozesua abiaraztea, eta gobernantza-egiturek baliozkotuko dute.

5 ERANSKINA. JARDUKETA NAGUSIEN LABURPENA

Ondorengo orrialdeetan, helburu orokor bakoitzerako identifikatutako jarduketa nagusiak jasotzen dira. Kasuren batean gerta daiteke jarduketa bera zenbait helburu orokorretan agertzea helburu horiei eta helburu espezifikoiei egiten dien ekarpenarengatik. Identifikazioa errazteko, kolore-kode bat erabili da:

Jarduketak ezartzean erantzukizun handiena duen erakundearen arabera egituratu da Plana:



Guztira **92 jarduketa** identifikatu dira:

- Osasun Sailaren 25 jarduketa.
- Osakidetzaren 21 jarduketa, 2023-2025 aldiko Plan Estrategikoan identifikatu dituenak.
- Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen 29 jarduketa: Hezkuntza, Gizarte-arloa, Kirola, Segurtasuna, Agenda eta Hiri Garapena, Elikadura,
- Foru-aldundien 14 jarduketa.
- Bilboko, Donostiako eta Vitoria-Gasteizko udalen 3 jarduketa, hiriburu bakoitzeko Osasun Plana.

Osasun Saila

OSASUN SAILA												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALAK				ZEHARKAKO HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
			1	OSASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA hedatzea	Osasuna Sustatzeko Programak Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak sustatutako jarduketaren plangintza jasotzen du, politika osasungarriak, ingurune osasungarriak sortzea eta ekintza komunitarioa, osasuna eta ongizatea irabazteko, trebetasun pertsonalen garapena sustatzeko, bizitzan zehar, eta osasunerako mesedegarriak diren erabakiak hartzeko.							
2	HAURREN OBESITATEA PREBENITZEKO ESTRATEGIA (SANO) berrikusi, eguneratu eta hedatzea	EAEen Haurren Obesitatea Prebenitzeko Estrategiaren jomuga haurren eta gazteen elikadura osasungarria eta jarduera fisikoa bultzatzea da, tartean diren eragile guztien ekintza koordinatuaren eta koherentearen bidez. Estrategiaren helburu zehatza EAEko haurren obesitatearen eta gehiegizko pisuaren prebalentziaren, eta, hortaz, horien ondorioen kopuruak jaiste da.										
3	SUBSTANTZIEN KONTSUMOAK ETA ADIKZIO-JOKABIDEAK PREBENITZEKO PROGRAMAK - ADIKZIOEN VIII. PLANA diseinatu eta ezartzea	Euskadiko Adikzioen VIII. Planak (2023-2027) jarduketa-ildoak zehazten ditu. Substantzien kontsumoak prebenitzeko programetan prebentzio unibertsal eta selektibora ez ezik, kalteak murriztera bideratutako jarduketak ere jasotzen dira. Plan honek aurrekontu-partidak ditu adikzioen prebentzio komunitarioarako programen garapena finantzatzeko, tokiko erakundeetan taldeak mantentzeko eta arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egiteko.										
4	POPULAZIOAREN PREBENTZIO- ETA BAHEKETA-PROGRAMA	Programa hau Osasun Sailak zuzendu du Osakidetzarekin lankidetzan estuan jardunda. Programa honetan Haurren Txertaketan Programa, jaioberrien baheketa-programak eta populazioaren beste baheketa-programa batzuk planifikatzen dira.										
5	HELDUEN OBESITATEA ETA ELIKADURA OSASUNGARRIA PREBENITZEKO ESTRATEGIA diseinatu eta hedatzea	Helduen obesitatea eta elikadura osasungarria prebenitzeko estrategia, sektoreen arteko ikuspegiarekin, ekitatearen ikuspegitik.										

OSASUN SAILA												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALAK				ZEHARKAKO HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
			6	HIESAREN ETA SEXU- TRANSMISIOZKO INFEKZIOEN AURKAKO EKINTZA-PLANA hedatzea								
7	2030ERAKO EUSKADIKO ONKOLOGIA-PLAN berria diseinatu eta garatzea	Euskadiko Onkologia Planak minbiziari zentzu zabalean heltzea aurreikusi behar du, eta helburu hauek txertatu behar ditu: sustapena eta prebentzioa; informazio-sistemak eta detekziorako, diagnostikorako eta tratamendurako asistentzia-eredua; medikuntza pertsonalizatua; eta, azkenik, ikerketa eta berrikuntza. Gainera, kolektibo espezifikoeetan jarri behar du arreta (haurtzaroa eta nerabezeroa; adinekoak; minbizia aspaldi gainditu zutenak; nerabeak eta heldu gazteak; ezohiko tumoreak dituzten pazienteak...), eta berrikuntzatik eta ikerketatik lan egin behar du.										
8	OSASUN KARDIOBASKULARRAREN ESTRATEGIA diseinatu eta ezartzea	Osasun Kardiobaskularreko Estrategia izango denak jarduketa-eremu handiak jasoko ditu: sustapena, prebentzioa eta detekzio goiztiarra; ahalduntzea eta herritarren parte-hartzea; ezagutzaren kudeaketa, ikerketa eta berrikuntza; ekitatea osasun kardiobaskularrean; gaixotasun kardiobaskular akutua duen pertsona modu integralean aztertzea eta gaixotasun kardiobaskular kronikoa duen pertsona modu integralean aztertzea, Espainiako estrategia erreferentziatzat hartuta.										
9	NEUROENDEKAPENEO GAIXOTASUNEN ETA GAIXOTASUN NEUROMUSKULARREN ESTRATEGIA diseinatu eta ezartzea	Neuroendekapeneko Gaixotasunen eta Gaixotasun Neuromuskularren Estrategia izango denak jarduketa-eremu handiak jasoko ditu: sustapena, prebentzioa eta detekzio goiztiarra; ahalduntzea eta herritarren parte-hartzea; arreta soziosanitarioa; zaintzaileentzako arreta; koordinazio soziosanitarioa; ezagutzaren kudeaketa, ikerketa eta berrikuntza; ekitatea, Espainiako estrategia erreferentziatzat hartuta.										
10	OSASUN MENTALEKO ESTRATEGIA diseinatu eta ezartzea	Estrategia honek, beste helburu batzuen artean, honako hauek proposatzen ditu: haurren osasun mentala sustatzea eta autonomia eta bizitza independentea izan dezaten bermatzea; estigmaren ondoriozko diskriminazioa desagerraraztea eta gaixotasun mentala duten pertsonen gizarteratzea erraztea; herritarren osasun mentala sustatzea eta nahasmendu mentalak prebenitzea; jokabide suizida prebenitzea, garaiz detektatzea eta artatzea; gaixotasun mentalak dituzten pertsonen arreta ematea, komunitatean suspertzeko ereduari oinarrituta; familiaren arreta eta esku-hartzea; erakundeen eta sektoreen arteko koordinazioa; eta herritarren parte-hartzea.										

OSASUN SAILA												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALAK				ZEHARKAKO HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
			11	EUSKADIKO ZAINKETA ARINGARRIEN PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2027 hedatzea	Plan estrategikoaren azken helburua da horrelakorik behar duten pertsona guztiei arreta aringarri integrala, kalitatezkoa, etengabea eta integratua ematea. Horretarako, 2023-2027 aldirako, bederatzai helburu estrategiko definitu dira, baita helburu horiek garatzeko beharrezkoak diren jarduketa-ildo nagusiak ere.							
12	EUSKADIKO ARRETA SOZIOSANITARIOKO ESTRATEGIA 2021-2024 hedatzea	Arreta soziosanitarioko estrategia honako jarduketa-arlo eta proiektu hauen bidez hedatzen da: <ul style="list-style-type: none"> • Gobernantza soziosanitarioa. • Elkarreragingarritasun soziosanitarioa. • Prebentzio soziosanitarioa. • Arreta soziosanitarioa. • I+G+B soziosanitarioa. 										
13	EUSKADIKO OSASUN PUBLIKOKO ERAKUNDEA sortzea	Osasun publikoko erakunde profesionalizatua, berezia, ikusgarria eta autonomia funtzionalekoa, eraginkorra eta bikaintasunera, ebaluaziora eta kontuak ematera bideratutako kudeaketa-eredua duena garatzea.										
14	OSASUN PUBLIKOAREN ERAKUNDEARTEKO BATZORDEA ETA OSASUN PUBLIKOAREN EAE-KO KONTSEILUA sortzea	Eragile publiko eta pribatuen sarea, osasun-arloko sektoreen arteko ekintza sustatuko duena, bultzatzea eta koordinatzea.										
15	OSASUN PUBLIKOAREN ESTRATEGIA diseinatu eta ezartzea	Osasun Planaren helburuen arabera, osasun publikoko sistema bikaina eta jasangarria garatzera bideratutako estrategia zehaztu eta ezartzea.										
16	KALITATEA HOBETZEKO ESTRATEGIA diseinatu eta ezartzea	Estrategia hau osasuna eta osasun publikoko laborategiak babestera bideratuta dago, eta, horretarako, kalitatea bermatzeko sistemak garatzen ditu eta osasun publikoko programak eta esku-hartzeak ebaluatzeko politikak txertatzen ditu, haien eraginkortasuna, efizientzia eta garrantzia baloratzeko, jarduna etengabe hobetzeko mekanismo gisa.										
17	OSASUN PUBLIKOKO ALERTEN ETA LARRIALDIEN SISTEMA garatzea	Alerten eta larrialdien sistema hau osasun publikoaren eginkizunak (osasuna zaindu, prebenitu, babestu eta sustatzea), herritarren osasun-premiei erantzungo dietenak, kalitatez (bikaintasunez eta jasangarritasunez) beteko direla bermatzera bideratuta dago.										

OSASUN SAILA												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALAK				ZEHARKAKO HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
18	OSASUN PUBLIKOA ZAINTEKO SARE AURRERATUA abian jartzea	OSASUN PUBLIKOA ZAINTEKO SARE AURRERATUA abian jartzea. Sare horrek informazio integraleko sistema eta zaintza-sarea indartuko ditu, biztanleriaren osasun-egoera eta osasunaren baldintzatzaile sozialen banaketa eta inpaktua identifikatzeko, baita osasun-arloko desberdintasunen banaketa eta izaera identifikatzeko ere, erabakiak errazago hartu ahal izateko maila globalean eta tokikoan.										
19	OSASUN BEHATOKIA garatzen eta hedatzen jarraitzea	Euskadiko Osasun Behatokia azterketa, komunikazio eta ikerketa-organo gisa sortu da . Tresna hori Osasun Sailari atxikita dago, informazioa eta ebidentzia emango dizkio, modu sistematikoa eta integralean, osasun-sistemari berari, erakundeei, ikerketako langileei, profesionaleri eta, oro har, gizarteari. EAEko biztanleriaren osasuna ekitatearen eta generoaren ikuspegitik monitorizatzea eta ebaluatzea du helburu, osasun-egoerari eta haren baldintzatzaileei buruzko informazioaren eta ebidentziaren eskuragarritasuna eta erabilera hobetuz, osasun-arloko plangintza, erabakiak eta jarduera hobetzen laguntzeko; horrela, EAEko biztanleriaren osasun-desberdintasunak eta horiek denboran zehar izan duten bilakaera ezagutu, aztertu eta zenbatetsi ahal izango dira.										
20	TENPERATURA ALTUEK OSASUNEAN DITUZTEN ONDORIOAK PREBENITZEKO JARDUKETAK diseinatu eta abian jartzea	Plan hau tenperatura altuen ondoriozko efektuak prebenitzeko da, eta honako alderdi hauek jasotzen ditu: tenperaturen zaintza eta iragarpena (Euskalmetek egiten du), alerta-mailen definizioa eta ezarpena tenperatura altuen egoeraren intentsitatearen arabera, herritar guztientzako eta talde kalteberenentzako gomendioak eta alerta-mailaren araberako prebentzio-jarduketak, zerbitzu sanitarioei, gizarte-zerbitzuei, tokiko erakundeei eta beste administrazio eta eragile batzuei zuzenduak...										
21	SEKTORE ARTEKO «OSASUN BAKARRA» ESTRATEGIA: BEKTOREAK ZAINTEKO ETA KONTROLATZEKO PROGRAMA ETA MIKROBIOEN AURKAKO ERRESISTENTZIEK ONDORIOZKO ARRISKUARI AURRE EGITEKO ESTRATEGIA INTEGRALA	Estrategia honek ikuspegi integral eta bateratzailea du eta pertsonen, animalien eta ekosistemen osasuna orekatzea eta optimizatzea du helburu. Hainbat gairi aplikatzen zaie, besteak beste, honako hauei: mikrobioen aurkako erresistentzia, zoonosia, bektoreek (eltxoak, akainak, zorriak eta arkakusoak) kutsatutako gaixotasunak, elikadura-segurtasuna eta ingurumen-osasuna (ura, airearen kutsadura, klima-aldaketa...).										

OSASUN SAILA												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALAK				ZEHARKAKO HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
22	ELIKADURA-SEGURTASUNARI ETA -OSASUNARI BURUZKO PROGRAMA hedatzea	Programa honetan honako hauek sartzen dira: elikagai-establezimenduetan eta ekoiztako edo merkaturatutako elikagaietan elikadura-segurtasunaren kontrol ofiziala egiteko programak (segurtasun kimikoa eta mikrobiologikoa), eta nutrizioarekin eta etiketatzearekin lotutako jarduerak (nutrizio- eta osasun-adierazpenak, eskola-jantoki osasungarriak, elikadura berezia).										
23	OSASUNA ETA ONGIZATEA IRABAZTEKO EKINTZA KOMUNITARIOARI BURUZKO PROIEKTUA ETA OSASUNA IKUSPEGI KOMUNITARIOTIK LANTZEKO ESTRATEGIA	Osasun komunitarioko lankidetzak diseinatu eta ezartzea, osasun publikoaren ikuspegitik.										
24	OSASUN-ARLOKO IKERKETA- ETA BERRIKUNTZA- ESTRATEGIA hedatzea	Estrategia honen helburua hau da: EAEko osasun-sistema bikaintasunak ezaugarritu dezala, eta ikerketa-zein berrikuntza-jardueren emaitzen translazioa bideratzea; horretarako, I+G+B arlo integratu eta dinamikoa izango du dagoen sare zientifiko-teknologikoarekin eta enpresa-sarearekin lankidetzan. 5 ardatz eta 7 helburu estrategiko ditu: 1. ardatza – Koordinazioa eta Integrazioa. 2. Ardatza – Espezializazioa. 3. Ardatza – Talentua. 4. Ardatza – Nazioartekotzea. 5. Ardatza – Baliabideak.										
25	OSASUN PUBLIKOAREN ARLOKO IKERKETA- ESTRATEGIA diseinatu eta garatzea	Estrategia hau osasun publikoko gaitasunak indartzera eta ikerketa bultzatzera bideratuta dago, osasunaren arloko politikak, estrategiak eta programak bideratzeko. Horretarako, biztanleriaren osasun-egoerari, osasunaren arloko baldintzatzaileak eta desberdintasunei buruzko ikerketa lehenetsi beharko da, baita osasun-sistemei eta -zerbitzuei buruzko ikerketa ere.										

Osakidetza

OSAKIDETZA												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA			HELBURU				ZEHARKAKO		
			EMAITZA			INSTRUMENTALAK				HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
1	HAURREN OSASUNERAKO PROGRAMA (HOP) (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) berrikusi, eguneratu eta hedatzea	Haurren Osasunerako Programa lehen mailako arretako arreta pediatrikoaren funtsezko eta ezinbesteko atal bat da. Haurtzaroko eta nerabezaroko prebentziora eta osasuna sustatzera dago bideratuta, eta zuzeneko eragina dauka adingabeen bizikidetza-unitate edo -ingurune osoan.										
2	HAURREN KRONIKOTASUNARI AURRE EGITEKO ESTRATEGIA (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta ezartzea	Estrategia honek haurren kronikotasunean jartzen du arreta, eta sustatu, prebenitu, artatu eta jarraipena egitera bideratuta dago.										
3	LEHEN MAILAKO ARRETARAKO ESTRATEGIA (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) hedatzea	Estrategia honek helburu hauek ditu: bizi-ohitura osasungarriak sustatzea sektore anitzeko eta lankidetzako inguruneak sustatuz; desgaitasunaren arabera doitutako bititza-urteak gehien galtzea eragiten duten egoeretarako plan espezifikoak hedatzea, prebentzioarekin lotura handiena duten alderdietan; baliabide komunitarioak, asistentzialak eta sozialak bultzatzea, osasun-hezkuntza hobetzeko; eta asistentzia soziosanitarioko sistemen eta osasun publikoko sistemen arteko koordinazio-mekanismoak hobetzea, jarduketan ekitatea eta kalitatea bermatzeko.										
4	ESTRATEGIA KOMUNITARIOA (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta ezartzea	Estrategia honen helburuetako bat osasun komunitarioa sustatzea da, herritarrek osasunaren kudeaketa autonomoagoan eta asistentzia-egituren erabilera arrazionalen aktiboki parte hartzea lortzeko.										
5	KRONIKOTASUNAREN ESTRATEGIA (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta ezartzea	Inpaktu handieneko gaixotasun kronikoak identifikatu eta lehenetsiz eta biztanleria eraginkorra geruzatuz, Arreta Plan Individualizatuen (API) erabilera estandarizatzea, edo asistentzia-prozesuak eta -ibilbideak birdefinitzea.										
6	AHALDUNTZEAREN ESTRATEGIA (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta ezartzea	Paziente Bizia programa eta Osasun Eskola zerbitzua osasun- eta autozaintza-hezkuntzara bideratuta daude.										

OSAKIDETZA												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA			HELBURU				ZEHARKAKO		
			EMAITZA			INSTRUMENTALAK				HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
7	ADINEKOEN ARRETA-PLANA (AAP) (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) berrikusi, eguneratu eta hedatzea	Adinekoen Arreta Planaren helburu nagusia da dimentsio anitzeko balorazio- eta jarduketa-prozedura bat eratzea adinekoentzat, egungo gomendioetan oinarriturik eta zahartze osasungarriaren sustapenera, eritasunen prebentziora eta funtzionaltasuna mantentzera bideratuta eta Lehen Mailako Arretaren errealitatera egokituta.										
8	HUMANIZAZIO-EREDU KORPORATIBOA (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) hedatzea	Osakidetzan humanizazio-estrategia garatzea, asistentzia humanizatuko eredu korporatibo baten hedapena, ebaluazioa eta aurrerapena ahalbidetzeko: Humanizazio Eredua definitzea; Zerbitzu-erakundeetan humanizazioko/asistentzia humanizatuko ekintza-plan korporatiboak hedatzea; Osakidetzaren humanizazio-eredua ebaluatzeko sistema definitzea.										
9	BALIOAREN ESTRATEGIA (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) hedatzea	Estrategia honen helburua estrategia espezifikoak bilduko dituen esparru bat ezartzea da, sistemari, herritarrei eta profesionaleri BALIOA emateko, kostuak erreferentziatzat hartuta.										
10	KALITATE-PLAN KORPORATIBOA (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta hedatzea	Plan honen helburua etengabeko hobekuntzako zikloak sartzea da, asistentzia-kalitatean bikaintasuna bilatzeko, segurtasunari, irisgarritasunari, jarraitutasunari, integrazioari, egokitzapenari eta humanizazioari lotutako kalitate-eskakizunak hobetzen lagunduko duen tresna izan dadin.										
11	PAZIENTEAREN SEGURTASUNERAKO ESTRATEGIA 2030 (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) hedatzea	Osakidetzaren 2030erako Pazientearen Segurtasunerako Estrategiak aurreikusten du azken hamarkadan EAEn garatutako jarduketa-ildo guztiak sendotzea eta, horretarako, gainera, beste bi eremu gehiago sartzea: larrialdi-zerbitzuak eta suizidioaren prebentzioa.										
12	BPSO ZAIKETEN ESTRATEGIA (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) hedatzea	BPSO (<i>Best Practices Spotlight Organizations</i>) Zaiaketen Estrategia zaiaketen bikaintasunarekin konprometitutako zentroetan jardunbide egokiak ezartzean oinarritzen da, RNAOk (Registered Nurses' Association of Ontario) egindako jardunbide kliniko egokiak gidatuz. Gida horiek hainbat herrialdeetako erakundeek zaiaketen estandarizazioa bilatuz atxikitzen zaizkien ebidentzia zientifiko onenean oinarrituta daude. Osakidetzak estrategia honen alde egin du, eta bere erakundeetan zabaltzen ari da.										

OSAKIDETZA													
JARDUKETA-PLANA													
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA			HELBURU				ZEHARKAKO			
			EMAITZA			INSTRUMENTALAK				HELBURUAK			
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3	
13	LANKIDETZA-LIDERGOAREN ETA GOBERNANTZAREN EREDUA (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta ezartzea	<p><i>Jasangarritasun-maila, bikaintasun-maila eta kontumate maila handiagoak lortzeko, asistentzia-sistemen gobernantza aldatzera eta asistentzia-sistema soziosanitarioaren jasagarritasuna eta bikaintasuna lortzeko beharrezkoak diren ahalmenak eta gaitasunak dituzten profesionalak izatera bideratutako jarduketak multzoa, honako helburu hauek dituzten jarduketak bidez: ezagutzak eredu formal eta eraginkor batean, ezagutza-transferentzia indartuko duen ezagutza kudeatzeko eredu bat garatzea; Osakidetzaren garapen profesionaleko eredu berri batean aurrera egitea, talentua atxiki eta erakarri ahal izateko; talentuaren mapa definitzea, behar diren talentu motak zehaztea eta horretara egokitutako prestakuntza-planak egitea, ibilbide profesionala hobetzeko eta erakundearentzat baliagarria izango den aktibo bat sortzeko; Osakidetzaren lidergo-eredu propioa definitzea eta bultzatzea.</i></p>											
14	LANBIDE-GARAPENeko EREDU BERRI BAT (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta ezartzea												
15	GAITASUN ASISTENTZIALA OPTIMIZATZEKO PLAN KORPORATIBO bat diseinatu eta ezartzea												
16	AKTIBOEN PLAN bat (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta ezartzea												
17	EZAGUTZAREN KUDEAKETA-EREDU bat (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta ezartzea												
18	TALENTUAREN MAPA bat (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta ezartzea												
19	INGURUMEN-KUDEAKETAKO ETA ENERGIA-EFIZIENTZIAKO PLANA (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) hedatzea		<p>Ingurumen-kudeaketako eta Energia-efizientziako Plan horrek, energia-efizientzia kontuan hartzeaz gain, kutsadura prebenituko du eta zentroen jarduerak eragindako ingurumen-inpaktuak murriztuko ditu, bereziki hondakin sanitarioen sorrerak eta kudeaketak eragindakoak eta energia-baliabideen erabilieratik eratorritakoak.</p>										

OSAKIDETZA												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA			HELBURU				ZEHARKAKO		
			EMAITZA			INSTRUMENTALAK				HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
20	BERRIKUNTZA KORPORATIBOAREN ESTRATEGIA bat (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta ezartzea	Berrikuntza Korporatiboaren Estrategia bat, berrikuntzaren eta ikerketaren kultura bultzatuko duena esku hartzen duten eragile guztiak tartean sartuz. Estrategia horrek osasun-arloko ikerketa- eta berrikuntza-sare bat izango du eta sare hori profesionalen talentuarengatik izango da ezaguna; berrikuntza- eta ikerketa-ekosistemak duen ahala erabiliko du osasun-arloan balioa sortzeko; eta I+G+B arloko emaitzak jardun asistentzialera eramateari dagokionez aurrera egingo du, sistemaren premia guztiei erantzungo baitie eta Osakidetzak emandako arretaren balioa handitu egingo baita.										
21	ERALDAKETA DIGITALAREN ESTRATEGIA bat (OSAKIDETZAREN 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA) diseinatu eta ezartzea	Garapen teknologiko berriein bat datozen asistentzia-prozesuak eta -ereduak eraldatzeko sortzen ari diren baliabideak eta teknologiak egokitzera bideratutako Eraldaketa Digitalerako Estrategia.										

Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk

EUSKO JAURLARITZAKO BESTE SAIL BATZUK											
JARDUKETA-PLANA											
JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALA K				ZEHARKAKO HELBURUAK		
		1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
LEHENDAKARITZA											
1	V. GAZTE PLANA hedatzea	Plan honek, osasun integraleko esku-hartze arloari dagokionez, honako hauekin lotutako jarduketak lantzen ditu: ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza; arreta eta prebentzioa antsietate- eta depresio-egoeren aurrean; jokabide arriskutsuak eta/edo adikzioak (substantziarekin edo gabe) prebenitzea gaztaroan, eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea, sexu-bizitza osasuntsua sustatzea eta ohitura osasungarriak sustatzea, hala nola elikadura, jarduera fisikoa eta aisialdi osasungarria.									
2	ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030ERAKO EUSKAL ESTRATEGIA hedatzea	2022ko ekainaren 21ean Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategia onartu zen. 36 ekimen osagarri biltzen ditu, helburu berarekin: susperraldi demografikoaren aldeko neurri eta baldintzen ekosistema eratzea. Onartutako neurrien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: 2023tik aurrera, 200 euroko laguntza hilean seme edo alaba bakoitzeko, hiru urtera arte; haur-eskolen doakotasuna 0-2 urteko etapan, Haurreskolak Partzuergoa indartuz; gazteak emantzipatzeko 2024an abian jarritako laguntza, 3 urteko iraupena izango duena.									
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA											
3	GURASOTASUN POSITIBOKO EKINTZA PLANA 2024-2028 diseinatu eta ezartzea	Gurasotasun positiboko ekintza-planak helburu hau du: 1. EAEn egin beharreko gurasotasun positiboko ekintzen oinarriak ezartzea. 2. Gurasotasun positiboko ekintzen mapa bat egitea, Haurrak eta nerabeak babesteko politiken errealitatean kokatuta egongo dena. 3. I+G+Bko laborategi bat sortzea (GurasoLab), Gurasotasun positiboko ekintza politikoak garatzeko. Ekintza horiek ikerketa zientifikoan oinarrituta egongo dira. 4. Zeharkako ikuspegia hartzea Gurasotasun positiboko printzipioak eta ekintzak hezkuntzaren, gizartearen, osasunaren eta justiziaren eremuetan zabaltzeko.									
4	ARRETA GOIZTIARREKO Programa berrikusi, eguneratu eta hedatzea	Arreta Goiztiarreko Programa 0-6 urte bitarteko haurrei, haien familiei eta inguruneari zuzendutako esku-hartze integralean oinarritzen da; izan ere, arlo sanitarioaren, hezkuntzaren eta gizartearen arloko diziplinarteko ikuspegitik, garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten haurren premia iragankor edo iraunkorreki ahalik eta lasterren eta modu integralean erantzutea dute helburu. 13/2016 Dekretuaren garapenari eta betetze-mailari buruzko txosten bat egitea eta arreta pertsonalizatuko planen diseinuan oinarritutako ikerketa bat egitea aurreikusi da.									

EUSKO JAURLARITZAKO BESTE SAIL BATZUK

JARDUKETA-PLANA												
JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALA K				ZEHARKAKO HELBURUAK			
		1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3	
5	HAUR BERMERAKO EUSKAL ESTRATEGIA 2024-2027 diseinatu eta ezartzea	Gaur egun egite-fasean dago. Europako Haur Bermea Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendio bat da. Gomendio hori 2021eko ekainaren 14an onartu zuten estatu kideek aho batez eta helburu hau du: haur-pobreziaren zikloa haustea eta hurrek aukeraberdintasunean hazteko eta garatzeko aukera izan dezatela.										
6	HAUR ETA NERABEEN KONTRAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO EUSKAL ESTRATEGIA 2022-2025 hedatzea	Estrategia honen helburua da EAEko erakundeak hobeto prestatuta egon daitezen lortzea: indarkeria mota guztiak prebenitzeko; indarkeria-egoerak goizago detektatzeko eta horietan garaiz esku hartzeko; arretan eta babesean integritasun handiagoa eskaintzeko eta eragindako kalte guztiak konpontzeko; errealitatea gehiago eta hobeto ezagutzen duen, etengabe hobetzen ari den eta kalitatezko arreta ematen duen erakunde-sarearen lankidetzeta eta elkarlana sendotzeko bidean aurrera egiteko. Gaur egun, 42 erakunde daude atxikita.										
7	HaurEkin, HAURREN HIRI ETA HERRIEN EUSKAL SAREA ekimena hedatzea	HaurEkin udalerrien sarea ekimenaren helburua hurrek eta nerabeek tokiko bizitzan parte hartzea da. 2021ean jarri zen abian eta egonkorra da, EAEko udalak atxiki baitira. Hiru ekimen garatu ditu: 1. Haurren kontseilua. Alkatetzaren organo aholku emailea da, hurrek eta nerabeek hiriri eta tokiko kudeaketari buruzko ikuspuntua emateko. 2. Lagunekin eskolara. Hirian mugitzeko autonomia hurrei itzultzeko udalaren apustua da. 3. Kaleak jolastu. Hiria jolasaren zerbitzura jartzeko, haurren eskubidearen ikuspegitik eta parametro sanitariotik.										
8	DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEK BIZIMODU INDEPENDENTEA IZATEKO EUSKAL EREDUA diseinatu eta ezartzea	Bizitza independentea izateko laguntza-sistema batean oinarritutako eredua, pertsona batek nonahi, nolanahi eta nahi duenarekin bizitzeko duen eskubidearen dimentsio indibiduala bultzatzera bideratua. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak lankidetzaren aldeko apustua egiten du. «Desgaitasunen bat duten pertsonek bizimodu independentea izateko duten eskubidea eskuratzeko premien eta oztopen azterketa partekatuz eta sakonduz, eta inplikaturako sistemetatik konponbideak eta erantzunak hobetuz, desgaitasunaren gizarte-erakundeen eta EAEko administrazio publikoen parte-hartzearekin (enplegua, etxebizitza, hezkuntza, gizarte-politikak...)»										

EUSKO JAURLARITZAKO BESTE SAIL BATZUK

JARDUKETA-PLANA												
JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALA K				ZEHARKAKO HELBURUAK			
		1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3	
9	EAE-KO GIZARTE-ZERBITZUEN II. PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2026 hedatzea	<p>Plan Estrategiko honen xedea GZES indartzea eta gure ongizatearen eredu propioan sakontzea da; horretarako, eredu familistik zaintzen gizarte-antolaketako eredura pasatu behar da eta trantsizio sozial, demografiko eta digitalari aurre egin behar zaio, 2030eko hamarkadarako eredu komunitarioarekiko egokiagoa den erantzukizun publikoko sistema unibertsala bermatuta. Hala, arretaren piramidea irauli nahi da.</p> <p>5 ardatz ditu: Autonomia, Integrazioa, Oreka, Artikulazioa eta Genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala. Ardatzok proiektu eragileen eta jarduketa osagarrien bidez hedatzen dira. Hauek nabarmendu behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Etxeko eta komunitateko arreta-eredua garatzea. • Nahi gabeko bakardadearen eta bakartze sozialaren aurkako Euskal Estrategia. • Gizarte Zaintzen aldeko Euskal Ituna. 										
10	ADINEKOEKIKO EUSKAL ESTRATEGIA 2021-2024 hedatzea	<p>Estrategiak datozen urteetarako hartu dituen konpromisoak 14 proiektu eragiletan zehazten dira, eta horien artetik honako hauek nabarmendu behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Adinekoen Batzordea: Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren barruan adinekoei zuzendutako politiken eremuan lan egiteko elkarrizketagunea. • Agenda Nagusi: parte hartzeko kultura sortzea. • Euskadi Lagunkoia: adinekoen herritartasun aktiboa sustatzea. Gaur egun, Euskadi Lagunkoia sarean 76 udalerrik dituzte proiektuak abian jarrita. • Bizitza Betea: adinekoentzako prestakuntza-jarduerak egiteko gida. • Helduak Zabaltzen: adinekoen gizarte-zentroen ereduen eraldaketa integrala eta haien digitalizazioa. • Zaintza Lurraldea: kalteberatasuneko, hauskortasuneko eta mendekotasuneko egoeretan dauden adinekoen bizi-kalitatea hobetzearekin lotura duten tokiko zaintza-ekosistemak dinamizatu, sistematizatu, ebaluatu eta eskalatzen ditu. 										
11	FAMILIA ZAINZAILEEI LAGUNTZEKO ESTRATEGIA SOZIOSANITARIOA 2021-2030 hedatzea	<p>Planaren helburua zainzaileen eta, iraupen luzeko zaintzetarako eredu oro har aldatzeko esparruan, zainduen zainketa instituzionala indartzea da. Denak ez dira adinekoak, baina asko eta asko bai: % 28,3 65 urtetik gorako pertsonak dira eta % 12,9k 75 urte edo gehiago dituzte.</p>										

HEZKUNTZA SAILA

EUSKO JAURLARITZAKO BESTE SAIL BATZUK

JARDUKETA-PLANA												
JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALA K				ZEHARKAKO HELBURUAK			
		1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3	
12	BIZIKASI ekimena hedatzea	Bizikasi ekimenak lagundu nahi du ikastetxeak elkarbizitza positiborako espazio seguruak bilakatzen, hau da, inolako jazarpen-egoerarik onartuko ez dutenak. Izan ere, hori lortzea ezinbestekoa da hezkuntza-sistemaren xede nagusia betetzeko: ikasle guztien garapen pertsonalean lagundu eta konpetentziak eta tresnak ematea herritar aktibo eta arduratsu gisa parte har dezaten gizartean.										
13	HEZKUNTZA-EREMUAN JOKABIDE SUIZIDAREN PREBENTZIOA, ESKU-HARTZEA ETA POSBENTZIOA EGITEKO ESTRATEGIA hedatzea	Estrategia honek jokabide suizidaren eremuan hezkuntza-erantzuna agortzen ez duten esparrua eta jarduketa multzoa eskaintzen ditu. Tresna hau baliagarria da Jokabide Suizidan Esku Hartzeko Plana behar bezala aplikatuko dela bermatuko duten gaitasun sozioafektiboen multzoa hezkuntza-komunitatean garatzea bultzatzen baitu beste jarduketa batzuen bidez.										
14	IRAKASLEEI ETA IKASLEEI ZUZENDUTAKO ONGIZATE EMOZIONALEKO PROGRAMA hedatzea	Proiektuaren helburu nagusia, hasieratik, LHko ikasgeletan ongizate emozionala lantzea, garatzea eta sustatzea da, ikasleak, irakasleekin batera, gaitasun sozial eta emozionala hobetzeko tresnak eta baliabideak garatzeko gai izan daitezen eta, horrela, bizitzan zehar sortuko diren zailtasun eta oztopoei aurre egin diezaieten.										
15	EAE-KO HEZKUNTZA-SISTEMARAKO II. HEZKIDETZA-PLANA, BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN berrikusi eta eguneratzea	II. Plana 2023an amaitu zen. Planaren helburua Hezkuntza Saila eta hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egituraz eta pertsonaz hornitzea da, hezkidetzan oinarritutako eskolaredua modu koordinatuan eta integrean sustatzeko. Ikastetxeek beren kulturalan, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezatela bultzatzea ahalbidetzen du. Mekanismoak martxan jartzeko aukera ematen du emakumeen aurkako indarkeria prebenitu, era goiztiarrean detektatu eta horri erantzun efikaza emateko.										
16	LH-KO EUSKAL SISTEMAN (TKNIKA-ZENTROAK) OSASUNARI BURUZKO IKERKETA APLIKATUKO proiektuak hedatzea	Hainbat diziplinako proiektuak, hala nola elikadura osasungarria, biologia zelularra eta bioinprimaketa, medikuntza pertsonalizatua, etxe adimendunak, osasunari eta elikadurari aplikatutako biologia molekularra, zahartzte aktiboa eta ongizate emozionala.										

LAN ETA ENPLEGU SAILA (OSALAN)

EUSKO JAURLARITZAKO BESTE SAIL BATZUK

JARDUKETA-PLANA												
JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALA K				ZEHARKAKO HELBURUAK			
		1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3	
17	LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIA 2021-2026 hedatzea	Estrategia honek ikuspegi zabaletik heltzen dio laneko arriskuen prebentzioari, eremu pertsonala, etxekoa eta familiakoa barne hartuta, eta lan-arloko alderdiek eta lan-arlokoak ez direnek sortutako arriskuekiko esposizioak hartzen ditu kontuan, printzipio hau kontuan hartuta: lana osasunaren baldintzatzaile gisa hartzen da eta, beraz, osasun-iturri gisa bideratu behar da.										
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA (IHOBE, ELIKA)												
18	UDALSAREA 2030EN 2026KO PLAN ESTRATEGIKOA eta KLIMAREN ETA ENERGIAREN ALDEKO ALKATEEN ITUNA hedatzea.	Udalsarea 2030 udalerrri jasangarrien EAEko sarea da tokiko jasangarritasuna sustatzea helburu duena eta EAEko administrazio publikoko mailen arteko koordinazioa sustatzen duena. IHOBek koordinatzen du eta EAEko udalerrriak eta eskualdeak mobilizatu nahi ditu Garapen Jasangarriko Helburuak eta 2030 Agenda lortzeko.										
19	2030ERAKO EUSKADIKO INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA OSASUNAREN ETA INGURUMENAREN BEHATOKIA hedatzea:	Ingurumen-arriskuek osasunean duten eragina identifikatzeko eta monitorizatzeko, eta arreta berezia emateko airearen, uraren, zarataren eta produktu kimikoen kalitateari, Osasunaren eta Ingurumenaren Behatokia eta ingurumen-osasuna hobetzeko jarduketa sorta bat garatu dira, «Osasun Bakarra» ikuspegia txertatuz.										
20	NEKAZARITZA-ELIKAGAIEN KATEAREN KONTROL OFIZIALERAKO PLANA 2021-2025 hedatzea	Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko plana da, eta nekazaritzaren, abeltzaintzaren, arrantzaren eta elikaduraren eremuak hartzen ditu barnean. Plan horrek helburu hauek ditu, besteak beste: elikakatearen katebegi guztietako arriskuak prebenitzea eta minimizatzea eta elikagaien segurtasun gorena bermatzea EAEko ekoizpen-sektorean, eta, beraz, osasun publikoaren babes gorena bermatzea.										
21	NIREA PROGRAMA hedatzea	Nirea programa sentsibilizazio-programa bat da, HAZIK egiten duena. Herritarrak sentsibilizatu nahi ditu gure baserriarrek elikadura osasungarri eta jasangarriari egiten dioten ekarpenaz (bertakoa). Ildo horretan, proiektu asko daude ikastetxeekin eta abarrekin, Elikarekin lankidetzan.										
22	EUSKAL IKERKETA-PLANA BASERRITIK MAHAIRA hedatzea	Elikagaien segurtasunaren arloko ikerketa-plana (orain Baserritik Mahaira deitzen zaiona) eta Ikerketa Koordinatzeko Mahaia, zeinetan honako hauek parte hartzen duten: Nekazaritzako Sailburuordetza, Osasuneko Sailburuordetza, EHU, AZTI, NEIKER, LEARTIKER eta Laboratorios SP (ELIKAK koordinatua). Elikagaien segurtasuna, elikadura osasungarria eta jasangarria dira Planaren ildoak, eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak eta Osasun Publikoko Zuzendaritzak koordinatuta parte hartzen dute										

EUSKO JAURLARITZAKO BESTE SAIL BATZUK

JARDUKETA-PLANA												
JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALA K				ZEHARKAKO HELBURUAK			
		1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3	
23	ELIKADURA OSASUNGARRIA PILOTAJE-TALDEA hedatzea	RIS3ko Elikadura Osasungarri eta Jasangarriaren Taldea, 6 azpitalde dituen, horien artean, Ekosistema seguruak, osasungarriak eta jasangarriak, Nutrizio pertsonalizatua eta elikagai eta proteina-iturri berriak zahartzeko osasungarria lortzeko eta Sukaldaritzaren garapena elikadura funtzional, osasungarri eta jasangarriaren. Elikadura Osasungarria pilotaje-taldea RIS3 estrategiaren barruan dago. Estrategia hori, halaber, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Planean (ZTBP) txertatuta dago										
KULTURA SAILA												
24	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIZITZA AKTIBO ETA OSASUNGARRIAREN PLANA diseinatu eta ezartzea	Bizitza aktibo eta osasungarriaren plana, GAPPA (Jarduera fisikoari buruzko munduko ekintza-plana 2018-2030) EAEko gizartera egokitzuz, jarduera fisikoari, sedentarisismoari eta loari buruzko gidalerroak betetzeko helburua duena, Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 LEGEaren aginduari jarraituz.										
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA												
25	ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA 2022-2026 hedatzea	Itun honen helburua lagunkoitasunaren ikuspegia EAEn hiri-irigarritasunera eta etxebizitzetara hedatzen laguntzea da, hots, inguruneak adinekoen gaitasun funtzionaletara egokitzea eta komunitatean parte har dezaten sustatzea.										
26	BULTZATU 2050 EUSKADIKO HIRI AGENDAko OpenGela eta BIRTUOSS proiektuetan aurrera egitea	Opengela eta BIRTUOSS proiektuak zabaltzea: «hiri-kalteberatasuneko» eremuetan auzo-bulegoak ezartzea. Ereku horiek birgaitze integraleko proiektuetan sartuta daude eta, leihatila bakar gisa, bizilagunei laguntzen diete eraikinak eta auzoak birgaitzeko prozesu osoan, gizaratearen, ekonomiaren eta ingurumenaren arloko alderdiak sartzea indartuz										
27	IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN EUSKADIKO ESTRATEGIA hedatzea	80/2022 DEKRETUA, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen, garatzea eta aplikatzea.										
SEGURTASUN SAILA												

EUSKO JAURLARITZAKO BESTE SAIL BATZUK

JARDUKETA-PLANA												
JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALA K				ZEHARKAKO HELBURUAK			
		1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3	
28	BIDE-SEGURTASUNeko PROGRAMAK hedatzea	Bide-segurtasuna hobetzera bideratutako hainbat programa: 1.- «Gerta dakizuke / Te puede pasar» programa, DBHko ikasleentzat. 2.- «Norabide guztiak / Cambio de sentido» antzerki-foruma, DBHko ikasleentzat. 3.- «Don't be Dummy / Zuk ez duzu ordezkorik / Para ti no hay repuestos» programa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasleentzat. 4.- «100 aldiz begiratu / Anda con 100 ojos» harrapatzeak prebenitzeko programa, adinekoen kolektibo kalteberarentzat. 5.- Segurtasunez gidatzeko ikastaroak, motor-gidarien kolektibo kalteberarentzat.										
29	BIDE-SEGURTASUNAREN ALDEKO EUSKAL ITUNA hedatzea	Itun hau Euskadiko Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Jasangarrirako 2021-2025 Plan Estrategikoaren helburu nagusiari erantzuteko da: istripu-tasa murriztea (trafiko-istripuek eragindako Zero biktimaren ikuspegitik) eta, horrela, EAE bide-segurtasunari eta trafikoaren kudeaketari dagokienez Europan erreferente bihurtzea, hildako eta larri zauritutako pertsonen kopurua murrizteko helburu orokorrak betez.										

FORU-ALDUNDIAK

FORU-ALDUNDIAK												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA			HELBURU				ZEHARKAKO		
			EMAITZA			INSTRUMENTALAK				HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
1	ARRETA GOIZTIARREKO Programa berrikusi, eguneratu eta hedatzea	Arreta Goiztiarreko Programa 0-6 urte bitarteko haurrei, haien familiei eta inguruneari zuzendutako esku-hartze integralean oinarritzen da; izan ere, arlo sanitarioaren, hezkuntzaren eta gizartearen arloko diziplinarteko ikuspegitik, garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten haurren premia iragankor edo iraunkorrei ahalik eta lasterren eta modu integralean erantzutea dute helburu. 13/2016 Dekretuaren garapenari eta betetze-mailari buruzko txosten bat egitea eta arreta pertsonalizatuko planen diseinuan oinarritutako ikerketa bat egitea aurreikusi da.										
2	ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO IV. FORU-PLANA 2021-2026 (AFA) hedatzea	Adikzioen prebentzio-komunitariorako Foru Planak (2021-2026) esku hartzeko hiru maila proposatzen ditu: familia, eskola eta komunitatea.										
3	BIZKAIKO FAMILIA ETA PERTSONA ZAURGARRIEKIN ESKU HARTZEKO PROGRAMAK (BFA) hedatzea	Programa horiek laguntza eta programa multzo bat zabaltzen dute, zailtasun-egoeran dauden familiei, adingabeei, emakumeei eta beste pertsona batzuei laguntzeko, haien bizi- eta osasun-baldintzak hobetzeko (Sendiko, Hobetzen Txikak, Hegan, Behinke, Bizitegi sarea...),										
4	GIPUZKOAKO HAUR ETA NERABEENTZAKO EKINTZA-PLANA 2023-2028 (GFA) hedatzea	Plan hau laster argitaratuko da eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzera, haurren eta nerabeen osasun fisiko eta emozionalerako arriskuak prebenitzera eta desberdintasunak murriztera bideratuta dago.										
5	ARABA A PUNTO Estrategia (AFA) hedatzea	Eraikuntza kolektiboko estrategia da, Arabako adinekoengan nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko erronkari buruzkoa. Helburuak: Gizarte-laguntza indartzea (Araba a punto Sarea), gizarte-trebetasunak handitzea (Bakardadearen Eskola), gizarte-elkarreragina handitzea (Araba inklusiboa) eta berrikuntza eta ikerketa sustatzea (Berritu a punto).										

FORU-ALDUNDIAK												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA			HELBURU				ZEHARKAKO		
			EMAITZA			INSTRUMENTALAK				HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
6	ETXEAN BAI FORU-PLANA (AFA) hedatzea	Etxean Bai Foru Plana Arabako Foru Aldundiaren estrategia bat da, arabar gehienek duten nahiari erantzuten saiatzen dena, hau da, beren etxean bizitzen jarraitu ahal izatea, mendekotasuna, desgaitasuna edo osasun mentaleko arazo larri bat izanda ere, baina beharrezkoak diren laguntzak edukita.										
7	ZAINDUZ ARABA (AFA) programa hedatzea	ZAINDUZ ARABA programak laguntza ematen die mendekotasun-egoeran dauden pertsona guztien zaintzaileei, haien adina edozein dela ere, baita desgaitasunen bat dutenei eta/edo gaixotasun mentalen bat dutenei ere, nahiz eta pertsona horiek mendekotasun-egoera aitorturik ez izan. Horretarako, honako hauek sustatzen dira: egonaldi laburrak atsedenerako plazetan, prestakuntza, autolaguntza-taldeak eta zaintzen duten familiei arreta psikosoziala ematea.										
8	DESGAITASUNA ETA GARAPEN-NAHASMENDUAK DITUZTEN PERTSONEN ZAHARTZEARI BURUZKO IKERKETA ZENTRO (AFA) bat sortzea	Hainbat fasetan garatuko da: lehenik eta behin, Araban adimen-desgaitasuna eta garapen-desgaitasuna dituzten pertsonen zahartzeari buruzko ikerketa-zentro bat sortzeko aholkularitza tekniko espezializatuaren bidez; bigarrenik, Gasteizko Salburua auzoan zainketa-zentro berri bati erantsitako gunea bat eraikiz; eta, hirugarrenik, zentro hori abian jarritz, onartutako jarduketa-plana hedatuz.										
9	BIZKAIKO PLAN OPERATIBO SOZIOSANITARIOA 2023-2026 (BFA) hedatzea	Plan Operatibo Soziosanitarioaren helburu orokorra arlo soziosanitarioko eta beste arlo batzuetako instituzio eta erakundeak egoki koordinatzen direla ziurtatzea da, premia soziosanitarioak dituzten pertsonen ahalik eta arreta onena eskaintzeko. Planak, halaber, jarduketak koherenteak izatea eta baliabideak, informazioa eta ezagutza zentzuz eta modu eraginkorrean aprobetxatzen dela ziurtatu behar du.										
10	IRAUPEN LUZEKO ZAINKETETAN TRANTSIZIOA SUSTATZEKO BIZKAIKO PLANA (BFA) zabaltzea	Plan honen helburua da iraupen luzeke zainketak eredu pertsonalizatuago baterantz alda daitezen sustatzea, dibertsitatearen arretan eta bizitza-proiektua garatzeko laguntza behar duten pertsonen premia (etxean zein egoitza-zentroetan), itxaropen eta lehentasunen bilakaeran aurrera egiteko.										
11	ADINBERRI, ZAHARTZARORAKO BERRIKUNTZAN ERREFERENTZIA DEN ZENTROA sortzea	Zentro hori Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuko du eta Pasaian kokatuta egongo da, zahartze osasuntsuaren erreferentziako gunea izango da, balio erantsi handikoa, ezagutza sortzeko eta arreta-eredu berriak esperimentatzeko gaitasuna duelako, besteak beste.										

FORU-ALDUNDIAK												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA			HELBURU				ZEHARKAKO		
			EMAITZA			INSTRUMENTALAK				HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
12	ADINBERRIREN BERRIKUNTZAREN AGENDA ESTRATEGIKOA 2023-2027 (GFA) diseinatu eta ezartzea	Fundazioaren jarduketa-esparrua, bizi-luzetasunaren erronkari erantzuteko. Proiektu estrategikoen inguruan antolatzen da. Osasunaren sustapenean, bakardadeen prebentzioan eta narriadura kognitiboa atzeratzean jartzen du arreta. Zainketak eta Gizarte Politiketako Departamentuari laguntzen dio eta hura osatzen du Departamentuaren estrategiak eta proiektuak hedatzen baititu jarduketa eragileen bidez, hala nola Silver Economy erronka, I+G+B, esperimantazioa, gaikuntza eta tresnak hedatuz: SIA-Adimen Aurreratuko Sistema, laguntzen deialdia, Ekosistema, Go to market eta prestatzeko eta gaitzeko ibilbidea										
13	LIBURU BERDEA. GIPUZKOA: ETORKIZUNEN EGOITZARANZKO TRANTSIZIOA hedatzea	Liburu Berdea Gipuzkoako egoitza-zentroetan arreta- eta zainketa-eredu berri bateranzko trantsiziorako gida da. Gipuzkoako egoitza-zentroetan arreta- eta zainketa-ereduranzko trantsizioa bultzatzea ahalbidetuko duten gizarte-politikako palankek eta jardueren buruzko ikuspegi adostua ematen du. Gipuzkoa 20>30 Agendaren 25. jarduketan («Egoitza arretako ostatuena etorkizunaz hausnartzea») dago sartuta, eta 3 helburu nagusi hauek ditu: diagnostikoa, etorkizuna (2030erako ikuspegia du) eta politikak (Gipuzkoan egoitza-zentroen eredu berri bateranzko trantsizioa sustatzeko palankak eta jarduketak)										
14	DATUAK PARTEKATZEKO PLATAFORMA FEDERATUA - ZAINZA HERRI LAB (GFA) abian jartzea	Zaintza Herri Lab Adinekoekiko Euskal Estrategiaren (2021-2024) barruan sartuta dagoen proiektu eragilea da eta Gipuzkoako 16 herritan dago. Herri horietan, tokiko zaintza-ekosistemak egituratzen dira errealitate bakoitzera egokituta. Testuinguru horretan, Pasaiko HerriLab da aurreratua eta Datuak partekatzeko plataforma federatua herri horretan ari dira abian jartzen; horren ondorioz, arreta soziosanitarioaren kalitatearen hobekuntzan asko aurreratuko da										

UDALAK

UDALAK												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALAK				ZEHARKAKO HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
1	BILBOKO UDALAREN I. OSASUN PLANA (2019-2023) hedatzea. Plan hori 2026ra arte luzatuko da	<p>Bilboko Udalaren I. Osasun Planak bi helburu nagusi ditu: 1. Bilboko biztanleriaren osasuna hobetzea, bizitza luzatu eta bizialdiaren kalitatea areagotuta. 2. Gizon eta emakumeen arteko, gizarte-taldeen arteko eta Bilboko auzoen arteko osasunaren inguruko gizarte-desparekotasunak apaltzea.</p> <p>Sei ildo estrategikoren inguruan antolatzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> Osasuna, udalaren politikaren ardatza. Bizi-zikloan zehar eta gizarte-talde ezberdinetan osasuna eta bizitzarako trebetasunak sustatzea. Osasuna sustatzen duten eremuak. Oinarrizko baldintzak bizitza osasuntsua izateko. Auzoa eta bere aktiboak osasuna sortzeko elementu gisa. Jakintza eta berrikuntza sortzea osasuna hobetzeko. <p>Baloratu da Osasun Plan hau Osasun eta Kontsumo Zuzendaritzak aurkezten duen arren, Gizarte Ekintzako Zuzendaritzaren eta Ingurumen Azpiarloaren jarduketak jasotzea, baita udalaren beste arlo batzuetakoak ere, Osasuna Politika Guztietan printzipioari jarraituz.</p>										
2	DONOSTIAKO UDALAREN TOKIKO I. OSASUN PLANA (2022-2025) hedatzea	<p>Plan honen xedea da Donostiako biztanleen osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzea. Zehazki, herritarren osasun-egoera eta bizi-itxaropena hobetzea eta auzoen arteko desparekotasunak murriztea ditu helburu.</p> <p>Planak hiru arlo ditu sei helburu orokor biltzen dituztenak. Horiek, aldi berean, helburu espezifiko batzuk dituzte</p> <p>Hauk dira Planaren hiru arloak:</p> <ol style="list-style-type: none"> Auzoetan osasuna zaindu eta sustatzen duten inguruneak. Inguruneak Osasuna sortzen duten programak eta zerbitzuak. Programak eta Zerbitzuak. Osasuna eta ekitatea udalaren arlo eta sail guztietan, eta haien politiketan. Gobernuak. 										

UDALAK												
JARDUKETA-PLANA												
	JARDUKETAK	DESKRIBAPENA	HELBURUAK ETA EMAITZA			HELBURU INSTRUMENTALAK				ZEHARKAKO HELBURUAK		
			1	2	3	4	5	6	7	Z1	Z2	Z3
3	GASTEIZKO UDALERRIKO III. OSASUN PLANA (2024- 2029) diseinatu eta ezartzea	Egite-fasean dago. Baloratu da Osasun Plan hau Osasun Sailak aurkezten duen arren, udalaren gainerako arloetako jarduketak ere kontuan hartzea, Osasuna Politika Guztietan printzipioari jarraituz.										